



**NA 16-19.EUS**

**EUSKARAREN I. PLAN ESTRATEGIKOA (2016 - 2019)**



**Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra**



**euskarabidea**

# Aurkibidea

## Hitzaurrea

### 1. Sarrera

- 1.1 Hizkuntza politika berrirako konpromisoak
- 1.2 Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua
- 1.3 Euskararen Plan Estrategikoa diseinatzearen prozesua
  - 1.3.1 Diagnostika abiaburu
  - 1.3.2 Mahai teknikoak
  - 1.3.3 Gizartearen partaidetza
  - 1.3.4 Behin betiko dokumentua

### 2. Nafarroan euskara zertan den

- 2.1 Diagnostika laburra
  - 2.1.1 Datu demografiko orokorrak
  - 2.1.2 Datu demolingüistiko nagusiak
  - 2.1.3 Egoera soziofuntzionalaren zenbait zertzelada
- 2.2 AMIA (Ahuleziak, Mehatxuak, Indarguneak eta Aukerak)

### 3. Euskararako paradigma berria

- 3.1 Jauzi kualitatiboa
- 3.2 Euskararen gaineko ikuskera berria, hizkera berria
- 3.3 Eredu estrategikoa
  - 3.3.1 Ardatz estrategikoak
  - 3.3.2 Ardatz bakoitzaren leloa

### 4. Ardatz estrategikoak, helburuak eta ekintzak

- 4.1 Gizarte erabilera
- 4.2 Hitzun berriak
- 4.3 Zerbitzu publikoak
- 4.4 Prestigioa eta erakargarritasuna
- 4.5 Ekonomia eragilea
- 4.6 Hizkuntza esparrua
- 4.7 Euskarabidearen barne kudeaketa

### 5. Jarraipena eta ebaluazioa

- 5.1 Jarraipena
- 5.2 Ebaluazioa
- 5.3 Aginte-koadroa

### 6. Memoria ekonomikoa

### 7. Eranskina

# Hitzaurrea

Hizkuntza bereki baten gizarte erabilera berreskuratzea eta zabaltzea urteetako egitasmo kolektiboa izan behar da eta herritar guztiak barne hartu behar ditu, administrazio publikoei dagokielarik egitasmoa zuzentzeko eta bermatzeko erantzukizuna.

Hizkuntza politikak —eta zeinahi politika publikok— planifikazioa behar du, hots, helburuak erdiestera bideraturiko neurriak garatzeko tresna bat izan behar du, lehentasunak ezarri eta baliabideak kudeatzen dituena.

Ilido horretan, 2015-2019 legegintzaldirako Nafarroako Gobernuaren akordio programatikoak bere gain hartzen du, eginbeharretako, «euskararen egoeraren diagnostiko oso eta eguneratua egitea eta Euskararen Kontseiluak plan estrategiko errealista, bideragarri eta eraginkor bat diseinatzea, Gobernuaren hizkuntza-politikaren oinarria finkatzeko» konpromisoa.

2016ko otsailaren 16an, Nafarroako Gobernuak, Euskarabidearen bidez, Euskararen Nafar Kontseiluaren aurrean aurkeztu zuen Euskararen Plan Estrategikoaren proiektua, helburuak eta metodologia. Une horretatik aitzina, Euskarabideak plana prestatzen jardun du, euskararen gizarte erabilera berreskuratzea eta zabaltzea bideraturiko ekintza antolatuzeko asmoz, herritar oren hizkuntza eskubideak bermatuz eta hizkuntza politikari zehar-lerro izaera emanez.

2017ko urtarrilaren 19an, Plan Estrategiko hau berretsi zuen Euskararen Nafar Kontseiluak eta, azkenik, Nafarroako Gobernuak onetsi zuen urte bereko urtarrilaren 25ean.

Plana egiteko prozesuan parte-hartze lan handia egin da. Hasierako diagnostikoaren emaitza plan hau da, Nafarroako erakunde publiko eta elkarteetako ehundik gora pertsonaren parte-hartzearekin aberastu eta indartu dena. Pertsona horiek guztiak gure komunitatearen aniztasuna islatzen duten askotariko sentsibilitateak ordezkatzen dituzte. Plana Nafarroako lurralde mapa guztia hartzen duten eskualde bileretan eta sektore mailako bost saiotan aurkeztu eta kontrastatu zen. Gainera, jendaurrean jarri zen eta herritarren ekarpenetara ireki zen. Horrek guztiak ahalbidetzen digu esatea plana gizartearekin eta gizartearendako egin dela.

Gobernuak konpromisoa du euskara bizikidetzaren baliotzat joko duen ikuskera eta hizkera bat sustatzeko, halako moldez non herritar guztiak harrotasunez beteko gaituen; eta planak xede horretan lagundu behar dio. Euskara baliabide erakargarri gisa, funtsezkoa gure komunitatearen integrazioarako; euskara ekonomiaren eragile gisa eta garapen jasangarri eta kalitatezkoari loturiko balio erantsi gisa. Azken finean, jarrera erreaktibo eta murriztaileetatik aldenuz, nafar oren eskuetan dagoen etorkizuneko hizkuntza gisa.

Duela 30 urte, Euskarari buruzko Foru Legeak bere aitzinsolasean bizikidetzarako eta pertsonen arteko ulermenerako hizkuntzei aitortu zien balioak indarraldi betean dirau gaur egun ere. Gaur eguneko Nafarroak gizarte kohesiorako funtsezko elementutzat ditu bi hizkuntza berekien bizikidetzaren eta herritar oren hizkuntza eskubideekiko errespetua. Borondate hori du gidalerro Nafarroako Gobernuaren Euskararen I. Plan Estrategiko honek.



**Ana Ollo Hualde**

NAFARROAKO GOBERNUAREN HERRITARREKIKO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETAKO KONTSEILARIA

**Argitaraldia:** Enero de 2017

**Internet:** [www.euskara16-19.nafarroa.eus](http://www.euskara16-19.nafarroa.eus)

**Argitaratzailea:** Nafarroako Gobernua / Gobierno de Navarra

Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera



Lan hau Aitortu - PartekatuBerdin 4.0 Nazioarteko Baimen baten mende dago. Iturria aipatzeko:  
Nafarroako Gobernua, Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua

# 01 Sarrera

Euskara Nafarroako mintzaira berekia da, hizkuntza gutxitua halere, azken mendeetan gizartean zuen lekua galduz joan dena eta egun berreskurapen prozesuan dagoena. Horregatik, babesa eta sustapena behar ditu, Nafarroako herritar guztien ondarea izanda, guztiendako onuragarria eta aberasgarria izateko.

Nafarroan hizkuntza politika garatzean bi dira aintzat hartu beharreko arau nagusiak: 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari buruzkoa; eta Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna, Espainiak 1992an sinatua eta 2001ean berretsia, bai eta horren jarraipen prozesuan (2005ean, 2008an, 2012an eta 2016an) Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak emandako aholkuak eta Adituen Batzordeak egindako txostenak.

## **Euskarari buruzko Foru Legeak, 1. artikuluan, honako hau ezartzen du:**

- 1** Foru Lege honen xedea euskararen erabilera arrunta eta ofiziala arautzea da, gizarte bizikidetzaren eta irakaskuntzaren esparruetan.
- 2** Hauek dira lege honen ezinbesteko helburuak:
  - Herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestea eta hori betetzeko tresnak zehaztea.
  - Euskararen berreskurapena eta garapena begiratzea Nafarroan, euskararen erabilera sustatzeko neurriak adieraziz.
  - Euskararen erabilera eta irakaskuntza bermatzea, borondatezotasun, mailakatze eta errespetu irizpideei jarraikiz, Nafarroako errealitate soziolinguistikoaren arabera.
- 3** Nafarroako euskalkiek errespetu eta babes berezia izanen dute.

Bestalde, 2.1. artikuluan ezartzen da gaztelania eta euskara Nafarroako berezko hizkuntzak direla eta, horren ondorioz, herritar guztiek dutela hizkuntza horiek jakiteko eta erabiltzeko eskubidea.

Bestalde, Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak, 7.2 artikuluan, gizartean ahulago dagoen hizkuntza erabiltzeko egon daitezkeen bereizketa, bazterkeria, murriztapen edo lehentasun justifikatu gabe oro, alegia, hizkuntza hori ahultzea edo hori mantendu edo garatzea arriskuan jartzea helburutzat izan dezaketenak ezabatze konpromisoa ezartzen die estatu sinatzaileei. Egoera ahulagoan dagoen hizkuntzak aldeko ekintzak behar dituela sinetsirik, Europako Gutunak argiro dio eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen aldeko neurri bereziak hartzea ez dela joko eremu zabalagoa duten hizkuntzetako hitzunen aurkako diskriminazio-ekintzatzat, neurri helburua eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzok erabiltzen dituztenen eta gainontzeko herritarren arteko berdintasuna bultzatzea edo hitzun horien egoera partikularrak aintzat hartzea bada.

Orobat, onartua da hizkuntza aniztasuna politika publikoetan aintzat hartu behar dela. Hizkuntzen arteko harremanak dinamikoak dira, eta, une batzuetan, harreman horiek gatazka kutsua har dezakete. Horrelakoetan, etsaitasunak pizteko edo areagotzeko bidea har daiteke, edo adostasunerako bideak bilatu, hau da, giza harremanetan sortu ohi diren gatazka egoerak gainditzen laguntzen duten kontsentsuzko lan-ildoak ezartzen saiatu.

Euskara ikasi nahi duten herritarrek baliabide egokiak behar dituzte, eta hitzunek, berriz, erabilerarako guneak; baina hori ez da gaztelania kaltetuz eginen, baizik eta bi hizkuntzak berdintasunez tratatuz.

Erakunde publikoek marko honen barruan garatu beharreko hizkuntza politikak, betiere, ongi planifikatua egon behar du, herritarrekin eta gizarte-eragileekin elkarlanean aritzera bideratua,

eta gauzatzeko egokiak diren baliabideez hornitua. Irakurleak, hurrengo orriotan, aipatutako xedeak aintzat hartu dituen plan bat aurkituko du: Euskararen I. Plan Estrategikoa (2016-2019).

## 1.1 Hizkuntza politika berrirako konpromisoak

2015-2019 legealdiko Nafarroako Gobernurako Programa Akordioak hizkuntza politika berria abiatu beharra nabarmendu du herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatu eta euskararen normalizazioan aitzina egiteko. Hizkuntza politika berriak honelakoa behar du:

- Zeharkakoa, politika publikoei eta gizarte arlo orori eraginen diena.
- Progresiboa eta Nafarroako egoera soziolinguistiko ezberdinei egokitua.
- Eraginkorra, ongi planifikatua eta ebaluatua.
- Parte-hartzea bultzatzen duena, bai herritarrena, bai gizarte-eragileena.
- Arauzko babes egokia duena hizkuntza eskubideak bermatzeko bidean aurrera egiteko.
- Euskarari gizartean prestigioa emanen diona.
- Herritarren askatasuna eta borondatezkotasuna begiratuko dituen.

2015-2019 legealdiko Programa Hitzarmenean Nafarroako Gobernuaren sostengatzen duten alderdiek euskararen gaineko politikari doakionez hainbat akordio adostu zuten. Euskarari buruzko neurri horietatik gehienak hizkuntza politika atalean bildu dira eta gainerakoak Hezkuntza, Kultura eta Funtzio publiko atalei esleitu zaizkie. Hona euskarari loturiko akordioak atalka aleturik:

### HIZKUNTZA POLITIKA

- Arauzko esparru egoki bat garatzea, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko.
- Euskararen legearen azken aldaketa garatzea eta nahi duten ikasle guztiek Nafarroa osoan D ereduaren ikas dezaketela ziurtatzea.
- Hizkuntza politikaz arduratzen den antolamendu unitatea dagokion esparruan kokatzea, hizkuntza politika zeharkakoa izan dadin eta departamentu guztien eta gobernu osoaren lana har dezan barnean.
- Ekitaldi publiko, harreman eta protokolozko ekitaldi guztietan eta, oro har, foru erakunde publikoen irudi korporatiboan euskarak presentzia egokia izan dezan ziurtatzea.
- Komunikazio estrategia berri bat aplikatzea, berritzailea eta integratzailea, euskarari prestigioa emateko gizartearen begietan eta gizarte euskara jakiteko eta erabiltzeko sentsibilizatzeko.
- Euskararen Kontseilua berritzea, gizartearen parte-hartze handiagoa izan dadin haren osaeran eta eskumen gehiago izan ditzan.
- Euskararen egoeraren diagnostiko oso eta eguneratua egitea eta Euskararen Kontseiluak plan estrategiko errealista, bideragarri eta eraginkor bat diseinatzea, Gobernuaren hizkuntza politikaren oinarria finkatzeko.
- Administrazioaren esparruan herritarrei ahal bezainbat euskaraz erantzuten saiatzeko konpromisoa hartzea, haien hizkuntza eskubideak bermatzeko eta, horretarako, langileen diagnostikoa egitea eta ele biko ibilbideak prestatzea.
- Toki entitateekiko lankidetzak hitzarmenari heltzea berriro, hizkuntza politika koordinatzeko eta optimizatzeko eta erakunde publikoen baliabideak trukatzeko, eta euskarazko udal zerbitzuen sarea handitzea, egungo eta etorkizuneko eskariari erantzuteko.
- Helduak euskalduntzeko eta alfabetatzeko 2015eko kontu saila berehala erabiltzea eta hainbat urtetarako lankidetzak hitzarmen bat sinatzea, euskaltegien egonkortasuna bermatzeko, azken urteetako murrizketak erremediatzeko eta euskaltegiek beren lana egiteko behar adinako finantzaketa maila berreskuratzeko.
- Helduak euskalduntzeko eta alfabetatzeko zentro publikoek eskariari erantzuten diotela ziurtatzea.

- Euskarazko komunikabideen eta euskara hein jakin batean erabiltzen dutenen finantzaketa lehengoratzeko eta hobetzea eta, horretarako, hitzarmenak eta laguntzak emateko deialdiak egitea.
- Finantzaketa publikoa duten hedabideak programen ehunekoren bat euskaraz ematera behartzea, deialdi bakoitzak finkatzen duen ratioaren arabera.
- Nafarroako herritar guztiek euskarazko hedabideak erabili ahal izatea ziurtatzeko neurriak hartzea.
- Plan Estrategikoaren esparruan, administrazioak berak kulturaren, kirolaren eta aisialdiaren esparruan antolatzen dituen jardueretan euskarazko eskaintza nahikoa izan dadila bultzatzea eta toki-entitateek antolatzen dituztenak babestea.
- Esparru sozioekonomikoan euskara erabil dadin bultzatzea eta enpresek eta beste entitate batzuek prestatzen dituzten euskara-planetarako laguntza lerro bat sortzea.
- Euskara hein handi batean ikasten den eta oro har erabiltzen den lekuen funtzio estrategikoa aztertzea eta han politika espezifikoak aplikatzeko aukera aztertzea.
- Euskara aztertzen eta sustatzen diharduten erakunde, entitate publiko eta ekimen sozialeko erakundeekiko lankidetzak normalizatzea eta hobetzea: EAE, Euskal Erakunde Publikoa Iparraldeko erakundea, Euskaltzaindia...
- Hitzartutako neurri guztiek finantzaketa eta giza baliabide nahikoak izateko konpromisoa hartzea.

### HEZKUNTZA

- Eremu ez-euskalduneko ikasleentzako prozedura berezi bat diseinatzea, otsailaren 24ko 4/2015 Foru Legea betetzeko, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatzen duena.
- Otsailaren 24ko 4/2015 Foru Legea garatzea eta aplikatzea, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatzen duena, eskatzen duten ikasle guztiek D ereduaren eskolatzeko eskubidea dutela ziurtatzeko.
- Eremu mistoan eta eremu ez-euskalduneko D ereduaren matrikulatzen diren ikasleei garraioa eta jantokia ordaintzeko laguntzak ematea, beren udalerrian eskaintzarik ez badute, eta beren eremuan eskaintza publikorik ez dagoelako nahitaez bidaiatu behar duten ikasleei garraioa eta jantokia ordaintzeko laguntzak ematea, 2015-2016 ikasturteak aurrera.
- Ezin ukatuzkoa denez gero Haur Hezkuntza hezigarria dela, Hezkuntza Departamentuak kudea dezan babestea; helburutzat doakotasuna eta sare bakarra izanik, hezkuntza arloko eragileekin batera plangintza bat diseinatzea, fasez fase gauza daitekeena; kalitate eta ekitate baldintzetan, herritar guztiak Haur Hezkuntzan sartu ahal izan daitezen ziurtatzea, segitu egin dezaketela ziurtatuta eta eskatzen duten hizkuntza errespetatuta; eta ikasleak onartzeko irizpideak aldatzea, kuotak aztertzea eta, eskumena Hezkuntza Departamentuak hartzen ez duen bitartean, udalek finantzaketa nahikoa dutela ziurtatzea.
- Hainbat urtetarako finantzaketa nahikoa hitzartzea Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin; prestakuntza eskaintza eta ikasleek goi mailako ikasketak egiteko zailtasunak aztertzea eta unibertsitateko tasak jaisteak; eta hizkuntza normalizaziorako plan estrategikoa bat egitea Nafarroako Unibertsitate Publikorako.
- Pixkanaka, Iruñeko eta Tuterako hizkuntza eskola ofizialetako eskaintza eta toki kopurua handitzea eta egoera estrategikoa eta eskaria kontuan izanik, beste udalerririk batzuetan ematea hizkuntza eskolan matrikulatzeko aukera.
- Ikastolen egungo eta etorkizuneko egoera aztertzea, hainbat hamarkadatan euskara normalizatzeko egin duten ekarpena kontuan izanik

**KULTURA**

- Herritarrek euskarazko kultura eskaintza balia dezaketela ziurtatzeko neurriak hartzea.

**FUNTZIO PUBLIKOA**

- Administrazioaren egitura eta beharrezko langile motak zehaztea: lanpostuak, profil profesionalak eta hizkuntza eskakizunak zehaztea.

**1.2 Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua**

Nafarroako Gobernuak bere hizkuntza politika berria gauzatzeko Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoari eskumen eta eginkizun berriak esleitu dizkio.

130/2015 Foru Dekretuak, abuztuaren 28koak, Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuaren estatutuak onesten dituenak (2015eko abuztuaren 31ko 170. NAO on argitaraturik) erakunde autonomo hori Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuari atxiki dio eta haren egitura organikoa eta eskumenak ezarri ditu zeharkako lana egin dezan, departamentu guztien eta, oro har, Gobernuaren ekintzari eragitearren.

Erakunde autonomoaren eskumenei doakienez, Euskarabideari dagozkio euskararen erabilera ofizialaren arautegia garatzeko ikerketa eta aholkularitza eskumenak, eta euskararen baliabideak planifikatzea, sustatzea eta kudeatzea Nafarroako Foru Komunitatean.

Euskarabidearen eginkizunen artean honako hau dago: v) Euskara sustatzeko eta erabiltzeko plan estrategikoaren proposamena egitea eta beroni jarraipena egiteko, ebaluatze eta eguneratzeko nahitaezkoak diren azterlan eta ikerketak egitea.

Esleiturik zaizkion eginkizunak eraginkor betetzearren, Euskarabideak garai berri honetan bere misioa, ikuskera eta balioak birdefinitu beharra ikusi du. Misioa honela zehaztu du: Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua Nafarroako Gobernuaren erakunde autonomoa da, zeinak, hizkuntzaren arloan indarrean den lege-araudiaren barnean, xede baitu Foru Komunitaterako hizkuntza-politika zehaztea, gidatzea, garatzea, gauzatzea eta ebaluatzea, biztanle guztien hizkuntza eskubideak bermatzeko eta euskara indarbertzeko eta sustatzeko; betiere, gizarte eragileekin eta gainerako administrazioekin elkarlanean.

Erakundeak bere ikuskera honela adierazi du: Euskarabidea euskara gizartean biziagotzeko erreferente berritzailea da, adostasuna bilatuko duena eta, euskara ikastea eta erabiltzea sustatuz, mintzairaren prestigioa jasotzen lagunduko duena.

Euskarabideak honako balio eta ezaugarriok jo ditu bere:

- Lankidetzeta eta lankidetzarako prest dago
- Gardena eta arina
- Errealista
- Ausarta
- Errespetuz jokatzeko du
- Integratzailea

**1.3 Euskararen Plan Estrategikoa diseinatzearen prozesua**

2015-2019 legealdirako Nafarroako Gobernuaren programa hitzarmenean, hizkuntza politikari dagokion atalean, Gobernuaren hizkuntza politikaren oinarria finkatzeko euskararen egoeraren diagnosi oso eta eguneratua eta plan estrategiko errealista, bideragarri eta eraginkorra egin beharra jasota dago.

2016ko otsailaren 16an Euskararen Nafar Kontseiluak Euskararen Plan Estrategikoaren helburuei nahiz hura burutzeko metodologiari oniritzia eman zien.

Plan Estrategikoaren dokumentu hau prozesu baten emaitza da. Idazkia apailatzeko urratsak 2016ko otsailean hasi ziren eta 2017ko urtarrilean amaitu. **Ondoko eskeman prozesuaren zati nagusiak jaso dira:**

**1.3.1 Diagnostika abiaburu**

Plan Estrategikoa apailatzeko prozesuaren abiapuntua Nafarroan euskara zertan den ezagutzea izan da. Euskararen egoeraren diagnostika 2016ko maiatzean eta ekainean burutu genuen eta horretarako informazio bide nagusi hauetaz baliatu ginen:

- Dokumentazioaren azterketa**  
Nafarroako ikerketa eta azterketa soziolinguistikoetara jo dugu batik bat euskararen ezagutzaren, erabileraren eta mintzairaren gaineko jarreraren egoera eta bilakaera ezagutzeko eta hizkuntzak gizarte arlo nagusietan duen egoeraz jabetzeko. Euskararen egoera sozio-funtzionala osatzeko dokumentazioa ez da homogenea, arlo batzuetan ikerlan ugari daude eta beste batzuetan, aldiz, azterketak urriak dira. Esaterako, Hezkuntza arloan euskararen egoeraren eta bilakaeraren datu anitz daude, eta arlo sozioekonomikoan aldiz, deus gutxi.
- Adituen ekarpenak**  
Nafarroako hizkuntza errealitatearen argazki orokorra irudikatu ahal izateko euskararen egoera ongi ezagutzen duten bederatzi adituen ikusmoldeak jaso genituen. Adituak arlo eta jardueraren ezberdinetakoak bai eta euskararekiko ikuspegi ideologiko anitzetakoak izan ziren. Izan ere, aditu taldea osatzerakoan alderdi hauei begiratu genien: euskararen egoera ezagutzea eta horren gaineko iritzia jantzia eta hausnarketa egina izatea; eta Nafarroako pentsamendu aniztasuna ongi ordezkatzeko. Hona diagnostika osatzeko ekarpenak egin zituzten adituak:



<b>Sagrario Aleman</b>	Helduen euskalduntze-alfabetatzean aditua eta euskaltzaina.
<b>Juan Cruz Alli</b>	Legelaria, NUPeko zuzenbide irakaslea izana eta Nafarroako Gobernuako presidente ohia.
<b>Mikel Arregi</b>	Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuko zuzendari-kudeatzailea.
<b>Xabier Erize</b>	Soziolinguistikan doktorea, ikertzailea eta euskaltzain urgazlea.
<b>M<sup>a</sup> Jesús Goicoechea</b>	NUPeko Irakasle Graduko irakasle erretiratua eta Giza eta Gizarte Zientzien Fakultateko dekanoa izana.
<b>Maite Inda</b>	Iruñeko Euskaingintzako koordinatzailea eta Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluan aritua.
<b>Iñaki Iriarte</b>	EHUko irakaslea eta UPNko parlamentaria.
<b>Miguel Izu</b>	Legelaria eta Nafarroako hizkuntza legedian aditua.
<b>Rosa Ramos</b>	Berriozarko euskara teknikaria eta euskaltzain urgazlea.

Ikerketa soziolinguistikoetako datuak eta adituekiko elkarrizketetako ikusmolde nahiz iritziak baliaturik Nafarroako euskararen egoeraren hasierako diagnostia eta horren aztertzeko tresna, AMIA (Arriskuak, Mehatxuak, Indarguneak eta Aukerak), eratu genituen.

Dokumentu honen 2. atalean diagnosiaren txostenaren laburpena eta AMIA jaso dira.

### 1.3.2 Mahai teknikoak

Hasierako diagnostia partaidetza teknikoaren prozesu baten bidez biribildu genuen: Nafarroako Administrazio publikoetako hainbat arduradun nahiz teknikariri eta gizarteko eragile talde askotarikoari euskararen egoeraren diagnostia osatzeko eta proposamenak egiteko aukera luzatu genien. 109 eragilek parte hartu zuten Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuaren egoitzan 2016ko ekainaren 9an eta 27an antolatu genituen bi lansaioetan, arlokako zortzi mahai teknikotan antolaturik. Hauek izan ziren mahai teknikoak:

- Politika publikoak
- Euskararen irakaskuntza eta euskarazko sozializazioa
- Helduen alfabetatzea eta euskalduntzea
- Gizarte erakundeak
- Euskarazko hedabideak
- Euskararen sustapena kulturaren, kirolean, aisialdian nahiz informazio eta komunikazio teknologietan (IKTetan)
- Arlo sozioekonomikoa
- Arnasguneak, euskararen dentsitate handiko lekuak, edo udalerrri euskaldunak

Arlokako mahai teknikoen lehen saioan, administrazio publikoetako eta gizarteko eragileek hasierako diagnostia eta AMIA osatu, erronka nagusiak identifikatu eta xede estrategikoak adostu zituzten. Bigarren lansaioan, aldiz, erronketan sakondu zuten eta helburuak nahiz ekintzak proposatzeari heldu zioten. Arlokako mahai teknikoetan parte hartu zuten eragileen zerrendak eranskinean eman dira.

Ekarpen horiekin guztiekin 2016ko udan behin betiko diagnostia ez ezik Plan Estrategikoaren hasierako idatzaldia ere osatu zen.

### 1.3.3 Gizartearen partaidetza

2016ko urriaren 21ean Plan Estrategikoaren hasierako idatzaldia aurkeztu genuen gizarteak ezagutu zezan eta ekarpenak egin ahal izan zitzaizkien. Dokumentua jendaurrean jarririk, gizartearen ekarpenak jasotzeko prozesua abiatu zen. Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuak jendaurreko epea ireki zuten urriaren 21etik azaroaren 21era, hala nahi zuten erakundeek eta lagunek beren proposamenak egin zitzaizkien. Prozesuaren gaineko informazio osoa bai eta sortuz joan diren dokumentu guztiak ere Nafarroako Gobernuaren atari horretan eskuragarri egon ziren. Prozesuan parte-hartu nahi zutenen eskura helbide elektronikoa eta telefonoa paratu ziren ekarpenak eta kontsultak egin zitzaizkien.

Bestalde, herritarren parte-hartze zuzena bultzatzeko asmoz eskualde bilerak eta arlokako bilerak antolatu genituen. Horietara biltzeko deialdiak irekiak izan ziren; dena dela, eragile batzuk berriaz gonbidatu genituen: toki administrazioetako ordezkariak nahiz ikastetxeetakoak eta hainbat elkarteetakoak (kultura, kirol, gazte, enpresari, auzotar... elkarteetakoak), turismo zein garapen partzuergoetakoak eta halakoak.

Urriaren hondar astean 6 eskualde-bilera egin genituen: Iruñean (23 lagun bildurik), Tafallan (15 lagun), Leitzan (15 lagun), Zangozan (12 lagun), Lizarran (17 lagun) eta Tuteran (15 lagun). Oro har, parte-hartzaileek oso positiboki iritzi zieten saioei eta informazioa zabaltzea eta tokian-tokian aurkezpenean eta lansaioa egitea biziki eskertu zuten.

Arlokako bilerak Iruñean, Nafarroako Administrazio Publikoetako Institutuaren egoitzan, antolatu genituen azaroaren bigarren astean. 5 bilkura egin ziren, arlo hauek jorrazteko: euskaingintza eta hedabideak (7 lagun bildurik), hezkuntza (24 lagun), administrazio publikoak (10 lagun), kultura (9 lagun) eta arlo sozioekonomikoa (10 lagun).

Gizartearen parte-hartzeko prozesuko eskualde-saioetan eta arlokako saioetan 154 ekarpen bildu ziren, Gobernu Irekiaren plataformaren medioz 66, posta elektronikoz igorriak 38 eta erregistro bidez 1. Guztira, 259 ekarpen jaso ziren.

Jasotako ekarpenak aztertu ziren eta 2016ko abenduaren 19an itzulera saioa antolatu zen, gizartearen parte-hartzeko prozesua akiturik, partaidetzaren emaitza-dokumentua jendaurrean aurkezteko.

Egoki jo ziren ekarpenak Plan Estrategikoaren dokumentuaren behin-behineko idatzaldia ixteko baliatu genituen.

Prozesu horrekin batera, irail eta azaro bitartean, Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuaren kudeaketa sistema berriaren azterketa egin genuen. Erakunde autonomoaren kudeaketa definitu genuen hizkuntza politika berriak eskatzen dizkion eskumen eta eginkizunei eta Plan Estrategiko honek dakartzkion erronkei egoki erantzuteko.

### 1.3.4 Behin betiko dokumentua

Plan Estrategikoaren behin-behineko idatzaldia Euskararen Nafar Kontseiluari aurkeztu zitzaion eta horrek 2017ko urtarrilaren 19an dokumentuari oniritzia eman zion. Buruenik, Nafarroako Gobernuak 2017ko urtarrilaren 25ean eginiko bilkuran Euskararen I. Plan Estrategikoa (2016-2019) dokumentua onetsi zuten eta behin betiko idatzaldi hori da argitalpen honetan aurkezten dena.

## 02 Nafarroan euskara zertan den

### 2.1 Diagnosi laburra

#### 2.1.1 Datu demografiko orokorrak

##### BIZTANLERIA

Nafarroako Estatistika Erakundeak emandako datuen arabera, 2015ean Nafarroak 640.476 bizilagun zituen

##### Nafarroako biztanleriaren bilakaera (2001-2015), hizkuntza eremuen arabera

Eremua	2001		2005		2010		2015	
	Biztanleak	%	Biztanleak	%	Biztanleak	%	Biztanleak	%
Nafarroa	556.263	100	593.472	100	636.924	100	640.476	100
Euskalduna	55.847	10,03	56.828	9,50	59.257	9,30	58.534	9,10
Mistoa	299.382	53,82	321.908	54,24	347.148	54,50	365.536	57,00
Ez-euskalduna	201.034	36,14	214.736	36,18	230.519	36,10	216.406	33,70

Iturria: Nafarroako Estatistika Erakundea

Biztanleen erdia baino gehiago, % 57, eremu mistoan bizi da eta, joera ikusirik, handitzen segituko du. Beste bi eremuetan aldiz, biztanle kopuruak gora egin badu ere, Nafarroako populazio osoarekin alderaturik, ehunekoak gero eta apalagoak dira. Eremu euskaldunearn nafarren % 9 inguru bizi da.

##### BIZTANLERIA ADIN TALDEEN ETA GENEROAREN ARABERA

Nafarroako populazioan helduek gero eta pisu handiagoa dute. 2015ean nafarren batez besteko adina 42,8 urtekoa zen. Biztanleriaren zahartzea agerikoa da. Azken urteotan, 30-59 urte bitarteko multzoa nabarmen hazi da.

##### Nafarroako biztanleria adin taldeen eta generoaren arabera, 2015


Adina	Osotara	%	Gizonezkoak	%	Emakumezkoak	%
0-14	100.731	15,73	51.554	16,22	49.177	15,24
15-29	95.440	14,90	48.500	15,26	46.940	14,55
30-44	149.817	23,39	77.013	24,23	72.804	22,57
45-59	138.363	21,60	70.391	22,14	67.972	21,07
60-74	94.568	14,77	46.215	14,54	48.353	14,99
≥ 75	61.557	9,61	24.212	7,62	37.345	11,58
<b>TOTAL</b>	<b>640.476</b>	<b>100</b>	<b>317.885</b>	<b>100</b>	<b>322.591</b>	<b>100</b>

Iturria: Nafarroako Estatistika Erakundea

##### ATZERRIAN SORTUTAKO BIZTANLEAK

Atzerritik iritsitako etorkinen hazkundera handia izan da hondar hamarraldian: 2015ean atzerrian jaiotako biztanleak 85.620 ziren, hots, Nafarroako biztanleen % 13,4. Horien % 8,5ek atzerriko naziotasuna du.

##### Atzerrian jaiotako biztanle kopuruaren bilakaera (2000-2015). Nafarroa



Iturria: Nafarroako Estatistika Erakundea

Datu horien guztien azterketak hainbat ondoriotara garamatza:

- Azken hamarraldietan Nafarroa demografikoki antzaldatu da.
- Nafarroako populazioa nabarmen hazi da: 2001ean 556.263 biztanle izatetik 2015ean 640.476 izatera igaro da. Hau da, 15 urteetan % 15,14ko hazkundera izan da.
- Nafarroako gizartea zahartzen ari da.
- Jaiotze-tasa apala da.
- Immigrazio-tasa altua izan da, hondar urteotan immigrazioaren hazkundera moteldu bada ere.
- Iruñerriak gero eta pisu demografiko handiagoa du Nafarroako biztanle guztiekiko.
- Eremu euskalduna pisu demografiko erlatiboa galduz joan da: % 10 izatetik % 9,1 izatera pasa da 2001etik 2015era. Beraz ia puntu bateko galera izan du

#### 2.1.2 Datu demolinguistiko nagusiak

##### HIZKUNTZA GAITASUNA

Ditugun azken datuen arabera, 2016an Nafarroan 16 urte edo gehiagoko herritarren % 12,9 euskalduna da, % 10,3 euskaldun hartzailea (euskaraz zerbait dakiena baina ongi mintzatzen ez dena) eta % 76,7 erdalduna.

Ondoko taulan euskararen ezagutza datuek azken 25 urtean izan duten bilakaera ikus daiteke:



**Nafarren hizkuntza gaitasunaren bilakaera (1991-2016)**

	Euskaldunak (%)	Euskaldun hartzailak (%)	Erdaldunak	Guztira absolutuak
1991	9,5	4,6	85,9	<b>421.000</b>
2011	11,7	7,5	80,8	<b>537.000</b>
2016	12,9	10,3	76,7	<b>533.602</b>

Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Euskararen ezagutzak oso errealitate ezberdinak ditu hizkuntza eremuen arabera. Eremu euskalduna da euskaldun ehunekorik handiena duena (% 61,1):

**Nafarren hizkuntza gaitasuna eremuen arabera**

2016	Eremu euskalduna (%)	Eremu mistoa (%)	Eremu ez-euskalduna (%)	Nafarroa (%)
Euskaldunak	61,1	11,3	2,7	12,9
Euskaldun hartzailak	13,4	12,0	6,8	10,3
Erdaldunak	25,5	76,8	90,5	76,7

Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Euskararen ezagutzaren bilakaera hizkuntza eremuen arabera:

**Nafarren hizkuntza gaitasunaren bilakaera eremuen arabera (2011-2016)**

2016	Eremu euskalduna (%)		Eremu mistoa (%)		Eremu ez-euskalduna (%)		Nafarroa (%)	
	2011	2016	2011	2016	2011	2016	2011	2016
Euskaldunak	59,3	61,1	9,8	11,3	2,3	2,7	11,7	12,9
Euskaldun hartzailak	12,6	13,4	9,6	12,0	3,1	6,8	7,5	10,3
Erdaldunak	28,1	25,5	80,6	76,8	94,6	90,5	80,8	76,7

Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Euskararen ezagutzaren bilakaerari dagokionez, igoera eremu guztietan gertatu da. Nabarmenezkoa da azken 5 urtean euskaldun hartzailak izan duten hazkundera eremu misto eta ez-euskaldunetan batik bat.

Adinari oharturik, euskaldunen ehunekorik handiena 35 urtetik beheitiko adin taldeetan dago, batez ere 16-24 urte bitartekoan:

**Hizkuntza gaitasuna adinaren arabera. Nafarroa**

2016	>=65 (%)	50-64 (%)	35-49 (%)	25-34 (%)	16-24 (%)	Navarra (%)
Euskaldunak	8,3	9,5	11,7	18,8	25,8	12,9
Euskaldun hartzailak	7,1	11,3	12,1	8,8	12,2	10,3
Erdaldunak	84,6	79,2	76,1	72,4	61,9	76,7

Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Azken 25 urteotako bilakaerari begiratu gero, euskaldunen hazkundera gazteenetatik zabalitzen ari da. 1991ean 16-24 urte bitartekoan % 10 ziren euskaldunak; 2016an aldiz, ehunekoa ia 16 puntu handiagoa da: % 25,8.

**Hizkuntza gaitasunaren bilakaera (1991-2016) adinaren arabera. Nafarroa**

1991-2016	>=65 (%)		50-64 (%)		35-49 (%)		25-34 (%)		16-24 (%)		Navarra (%)	
	1991	2016	1991	2016	1991	2016	1991	2016	1991	2016	1991	2016
Euskaldunak	10,7	8,3	9,4	9,5	10,3	11,7	7,0	18,8	10,0	25,8	9,5	12,9
		- 2,4		+ 0,1		+ 1,4		+ 11,8		+ 15,8		+ 3,4

Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Ikus dezagun euskaldunen bilakaera eremuen arabera xehakaturik:

**Hizkuntza gaitasunaren bilakaera (1991-2016) adinaren arabera. Eremu euskalduna**

1991-2016	>=65 (%)		50-64 (%)		35-49 (%)		25-34 (%)		16-24 (%)		Navarra (%)	
	1991	2016	1991	2016	1991	2016	1991	2016	1991	2016	1991	2016
Euskaldunak	68,5	58,4	64,5	51,1	57,4	56,0	51,2	77,7	56,7	89,6	60	61,1
		- 10,1		- 13,4		- 1,4		+ 26,5		+ 32,9		+ 1,1

Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

**Hizkuntza gaitasunaren bilakaera (1991-2016) adinaren arabera. Eremu mistoa**

1991-2016	>=65 (%)		50-64 (%)		35-49 (%)		25-34 (%)		16-24 (%)		Navarra (%)	
	1991	2016	1991	2016	1991	2016	1991	2016	1991	2016	1991	2016
Euskaldunak	4,3	4,1	3,4	7,1	7,0	10,1	3,8	18,7	7,1	27,3	5,2	11,3
		- 0,2		+ 3,7		+ 3,1		+ 14,9		+ 20,2		+ 6,1

Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Eremu ez-euskaldunetan euskaldunen eta euskaldun hartzailen ehunekoa apal-apala zen 1991n, 2016an adinaren arabera honako hau da euskararen ezagutzak:

**Hizkuntza gaitasunaren bilakaera (1991-2016) adinaren arabera. Eremu ez-euskalduna**

2016	>=65 (%)	50-64 (%)	35-49 (%)	25-34 (%)	16-24 (%)	Zona no vascófona (%)
Euskaldunak	0,7	1,4	2,7	4,1	8,6	2,7
Euskaldun hartzailak	4,6	6,8	6,9	6,5	12,3	6,8

Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Hiriburuak duen garrantzi demografikoa dela-eta, Iruñeko egoera bereiz emanen dugu:

#### Hizkuntza gaitasunaren bilakaera (2011-2016). Iruña

Iruña	2011 (%)	2016 (%)
Euskaldunak	9,1	10,5
Euskaldun hartzaileak	9,3	11,4
Erdaldunak	81,7	78,1

Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Adinaren arabera xehakaturik, aipatzekoa da egun gazte iruindarren (16-24 urte bitarteko) lautik bat (% 25,1) euskalduna dela eta % 11 gehiagok euskaraz zerbait dakiela.

#### Hizkuntza gaitasuna adinaren arabera. Iruña

2016	>=65 (%)	50-64 (%)	35-49 (%)	25-34 (%)	16-24 (%)	Pamplona (%)
Euskaldunak	4,1	7,5	10,3	16,3	25,1	10,5
Euskaldun hartzaileak	7,9	13,6	14,0	9,1	11,9	11,4

Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Familia bidezko hizkuntza transmisioaren datuei dagokienez, datuak hauek dira:

#### 3-15 urte bitarteko seme-alabak dituzten familien hizkuntza transmisioa. Nafarroa

	Transmititutako hizkuntza(k)		
	Euskara (%)	Euskara eta erdara (%)	Erdara (%)
Guraso biak euskaldunak eta lehen hizkuntza euskara dutenak	94	6	0
Guraso biak euskaldunak eta bietako batek lehen hizkuntza euskara duena	73	17	10
Guraso biak euskaldunak eta lehen hizkuntza erdara dutenak	31	53	15
Guraso bietariko bat euskalduna eta lehen hizkuntza euskara duena	0	77	23
Guraso bietariko bat euskalduna eta lehen hizkuntza erdara duena	0	54	46

Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Egun Nafarroan guraso biek lehen hizkuntza euskara dutelarik ez dago transmisio-galerarik, % 94k euskara transmititzen du eta % 6k euskara eta gaztelania. Hori da egoerarik hoberena, gainerako egoeretan familia bidezko transmisioa ez da kasu guztietan bermatzen.

Hori horrela, ataltxo honetan azaldu ditugun hizkuntza gaitasunaren gaineko datuen azterketatik hauek ondorioztatzen dira:

- 16 urte edo gehiagoko nafarren % 12,9 euskalduna da. Azken 25 urteotan, 1991tik 2016 bitarte, euskararen ezagutza 3,4 puntu hazi da (% 9,5 > % 12,9).
- 16 urte edo gehiagoko nafarren % 10,3 euskaldun hartzailea da. Azken 25 urteotan euskaldun hartzaileen ehunekoa 5,7 puntu hazi da (% 4,6 > % 10,3). Igoera batik bat eremu mistoan eta ez-euskaldunean da nabarmena.
- 16-24 urte bitarteko gazteak dira azken 25 urteotan euskaldun ehunekoa gehien berretu duen adin taldea, 15,8 puntu (% 10 > % 25,8). Hau da, euskararen irabazi demografikoak gazteak dira.
- Euskarazko hitzun berriak batik bat familiaren bidezko hizkuntza sozializazioari eta euskarazko eskolatzeari esker gertatzen ari dira.
- Familia bidezko euskararen transmisioaren arloan gurasoen lehen hizkuntzaren arabera alde handiak daude.

#### EUSKARAREN ERABILERA

2016ko Inkesta Soziolinguistikoa jasotako datuen arabera, nafarren % 6,6k euskararen erabilera trinkoa egiten du (euskaraz erdaraz baino gehiago edo erdaraz beste egiten ohi du). Azken 25 urteotan euskararen erabilera orokorra ez da nabarmen aldatu, halere, hondar bosturtekoan igoera garbi agertzen da (% 5,5 > % 6,6= + 1,1 puntu). Beti erdaraz egiten duten nafarrak aldiz, 3,6 puntu gutxitu dira 1991etik hona.

#### Erabilera aitortuaren bilakaera (1991-2016). Nafarroa

Nafarroa	1991 (%)	2001 (%)	2011 (%)	2016 (%)
Euskaraz erdaraz baino gehiago	3,7	4,2	3,6	3,7
Euskaraz erdaraz beste	2,3	1,7	1,9	2,9
Euskaraz erdaraz baino gutxiago	3,1	4,2	4,6	5,6
Oso gutxi euskaraz	1,9	2,3	2,5	2,5
Beti erdaraz	88,9	87,6	87,3	85,3

Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Bestalde, euskararen erabilera adin taldeka sailkatuturik:

#### Erabilera aitortua adinaren arabera. Nafarroa

2016	>=65 (%)	50-64 (%)	35-49 (%)	25-34 (%)	16-24 (%)	Navarra (%)
Euskaraz erdaraz baino gehiago	3,9	3,3	3,3	4,3	3,8	3,7
Euskaraz erdaraz beste	1,8	2,4	3,0	4,5	3,7	2,9
Euskaraz erdaraz baino gutxiago	1,9	4,9	4,8	7,8	14,1	5,6
Oso gutxi euskaraz	0,9	1,8	3,6	3,0	3,9	2,5
Beti erdaraz	91,4	87,6	85,2	80,3	74,4	85,3

Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Adin taldeen erabilerearen bilakaerari erreparaturik ikus dezakezu euskararen erabilera 65 urtetik beheitiko adin talde guztietan igo dela. Igoerarik handiena 25-34 urte bitartekoaren artean gertatu da: + 3,1 puntu (% 5,7 > % 8,8).

#### Erabilera aitortuaren bilakaera adinaren arabera. Nafarroa

2016	>=65 (%)		50-64 (%)		35-49 (%)		25-34 (%)		16-24 (%)		Navarra (%)	
	2011	2016	2011	2016	2011	2016	2011	2016	2011	2016	2011	2016
Euskaraz erdaraz baino gehiago	5,8	5,7	4,9	5,7	5,1	6,3	5,7	8,8	7,3	7,5	5,5	6,6
Euskaraz erdaraz beste												
		- 0,1		+ 0,8		+ 1,2		+ 3,1		+ 0,2		+ 1,1

Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Eremuka aztertuturik, euskararen erabilera eremu euskaldunetan eta eremu mistoan handitu da. 1991tik 2016 bitartean, euskaraz erdaraz beste edo gehiago egiten dutenen ehunekoak 3,9 puntu egin du goiti eremu euskaldunetan (1991n % 46,8 > 2016an % 50,7). Hazkunderik handiena azken bost urtean, 2011tik 2016ra, gertatu da: 2,1 puntu (2011n % 48,6 > 2016an % 50,7). Eremu mistoan ere azken bosturtekoan gertatu da hazkundera: 1,5 puntu (2011n % 1,7 > 2016an % 3,2). Eremu ez-euskaldunetan aldiz, euskararen erabilera bere horretan segitzen du, apal-apal (% 0,2).


Erabilera aitortuari dagozkion datu horiek erabilera neurtuaren datuen aldean paraturik, alde bada, handia ez bada ere; neurtutako erabilera apalxeagoa dela. 2016ko kale neurtutako daturik oraindik ez dugula, honelakoa izan da euskararen erabilera neurtuaren bilakaera Nafarroan 1989tik 2011 bitartean, adin taldeka:

#### Erabilera neurtuaren bilakaera (1989-2011) adinaren arabera. Nafarroa

Kale neurtuta	Nafarroako erabilera osotara	Hurrek	Gazteek	Helduek	Adinekoek
1989	6,5	9,8	5,3	5,3	5,8
1993	7,5	10,6	7,1	5,8	6,5
1997	6,8	8,8	6,4	6,0	6,1
2001	6,0	7,6	6,4	5,1	5,2
2006	6,0	7,8	6,2	5,2	5,3
2011	5,7	7,5	5,6	5,4	3,3

Iturria: ALTUNA et al. (2)

Gazte euskaldunen hizkuntza erabilera ez-formalaren beste alderdi bat erakustearren, D ereduaren eskolaturiko 14 eta 18 urte bitarteko gazte nafarren artean egindako ikerketa baten emaitzak aipatuko ditugu: gazteen % 8,3k euskaraz egiten du WhatsApp aplikazioaren bidez egiten dituen komunikazioetan (oro har ez-formalak edo lagunartekoak diren horietan) eta % 53,2k euskara eta gaztelania erabiltzen ditut.



Iturria: GARJÓN, A. (3)

Euskararen erabilerearen ataltxo hau amaitzeko, 2016ko Inkesta Soziolinguistikoa ematen duen balorazioa ekarriko dugu: Nafarroan ahozko euskararen presentzia gero eta handiagoa da bai familiaren esparruan, bai eremu hurbiletan, baita formaletan ere.

Hori horrela, euskararen erabilerearen gainera datuen azterketak ondorio hauetara garamatza:

- 16 urte edo gehiagoko nafarren % 7 inguruk euskararen erabilera trinkoa egiten du.
- 2011tik 2016ra euskararen erabilera 1,1 puntu egin du goiti (% 5,5 > % 6,6).
- Igoera hori euskara erdaraz beste erabiltzen dutenen artean gertatu da, eremu euskaldunetan eta mistoan batez ere.
- Gazteen artean euskararen erabilera ez da igo, ezagutza nabarmen hazi bada ere. Horrek belaunaldi berrien *euskararen erabilerearen paradoxa* lirudikeenaren aitzinean jartzen gaitu: euskaraz dakiten haur-gazteen ehunekoak etengabe hazi da, baina haien euskararen erabilera aldiz, ez (4).

(1) Euskararen Kale-erabilerearen Neurketak herri bateko hizkuntza erabilera behaketa zuzenaren bidez zehazten du karrikan aditzen diren hizkuntzak jasoz. 1989an, Euskal Kultur Batzordearen ekimenez, egin ziren estreinakoz kale neurketak Euskal Herriko udalerririk handienetan eta Siadeco izan zen ikerketa zuzendu zuen enpresa. Harrezkerotik lau edo bost urtetan behin egiten dira (1989, 1993, 1997, 2001, 2006 eta 2011n). Egun Soziolinguistika Klusterrak du kale neurtutako ardura.

(2) ALTUNA et al. (2012). Hizkuntzen Kale-erabilerearen VI. Neurketa, 2011. Emaitza nagusiak. *BAT* 84, 31-58.

(3) GARJÓN, A. (2014). Euskararen erabilera sare sozialetan Nafarroako D ereduko Batxilergoko ikasleen artean. *Soziologia Aplikatuaren Gradu Bukaerako Lana*. Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Txosten argitaragabea.

(4) KASARES, P. (2014). *Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Bilbo: Euskaltzaindia.

**EUSKARA SUSTATZEAREN GAINKO JARRERAK**

Nafarroako 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 33,3 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, % 27,6 ez alde ez aurka, eta % 39,1 aurka dago. 1991etik hona bilakaera honelakoa izan da:

**Euskara sustatzearen gainko jarrerren bilakaera (1991-2016). Nafarroa**

Nafarroa	1991 (%)	2001 (%)	2011 (%)	2016 (%)
Alde	21,6	33,3	37,7	33,3
Ez alde ez aurka	26,6	32,2	27,8	27,6
Aurka	51,8	34,5	34,5	39,1

Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Nafarroan euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak ia 13 puntuko igoera izan du orain dela 25 urteko datuekin alderaturik (% 21,6 > % 33,3), baina orain dela 5 urteko datuaren aldean, aldeko jarrerak beheiti egin du (% 37,7 > % 33,3).

Euskararekiko jarrera horrek lotura handia du hizkuntza-gaitasunarekin. Izan ere, euskaldunen % 82,3 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, euskaldun hartzaileen % 51,1 eta erdaldunen % 22,7. Era berean, euskara sustatzearen aldeko jarrera askoz handiagoa da eremu euskaldunean (% 68,1), eremu mistoan (% 36,3) eta eremu ez-euskaldunean baino (% 19,1). Ikus dezagun euskara sustatzearen gaineko jarrerren bilakaera hizkuntza eremuen arabera:

**Euskara sustatzearen gaineko jarrerren bilakaera (2011-2016) eremuen arabera**

2011-2016	Eremu euskalduna (%)		Eremu mistoa (%)		Eremu ez-euskalduna (%)		Nafarroa (%)	
	2011	2016	2011	2016	2011	2016	2011	2016
Alde	69	68,1	42,5	36,3	22,5	19,1	37,7	33,3
Ez alde ez aurka	21,6	22,3	26,6	31,9	31,3	21,8	27,8	27,6
Aurka	9,4	9,5	30,9	31,8	46,2	59,1	34,5	39,1

Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Adinari dagokionez, 50-64 eta 25-34 urte bitartekoek dute euskara sustatzearen aldeko ehunekorik altuena (% 37,6 eta %34,8 hurrenez hurren). 65 urte edo gehiagokoek eta 35-49 urte bitartekoek dute, ordea, aurkako jarrerarik handiena (% 41,3 eta % 40,7).

Euskara sustatzeko Nafarroako Gobernuak egindako lanaren gaineko balorazioaz galdegini, % 35,4k dio egokia dela eta % 41,2k desegokia. Egoki jotzen dutenen ehunekoa hiru eremuetan hazi da. Iritzi horren bilakaera ondoko taulan ikus daiteke:

**Euskara sustatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoaren gaineko jarrerren bilakaera (2011-2016) eremuen arabera**

2011-2016	Eremu euskalduna (%)		Eremu mistoa (%)		Eremu ez-euskalduna (%)		Nafarroa (%)	
	2011	2016	2011	2016	2011	2016	2011	2016
Egokia	5,5	49,9	19,5	39,6	19,8	24,4	18,3	35,4
Desegokia	66,3	29,9	56,0	41,4	30,7	44,0	47,8	41,2

Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Hiriburuari dagokionez, Iruñean % 37,6k du euskara sustatzearen aldeko jarrera, eta % 32,7k aurkakoa. Azken bost urteotan aldeko jarrera 5,2 puntu apaldu da (% 42,8 > % 37,6) eta kontrakoa 3,1 puntu (% 34,5 > % 32,7). Ez alde ez aurka dauden ehunekoa berriz, 7 puntu igo da (% 22,6 > % 29,6).

**2.1.3 Egoera soziofuntzionalaren zenbait zertzelada****EUSKARAREN HIZTUN BERRIAK**

Hiztun berrizat heldutan euskaldundu direnak ez ezik, eskolaren bidez euskara ikasi dutenak ere hartzen ditugu.

Helduen euskalduntzeari dagokionez, ondoko taulak ikastegi eta euskaltegi publikoei nahiz gizarte ekimenekoei buruzko 2015-2016 ikasturteko datuak biltzen ditu:

**Helduen euskalduntze-alfabetatzearen datuak 2015-2016 ikasturtean. Nafarroa**

	Ikastegiak	Taldeak	Ikasleak
Gizarte ekimeneko ikastegiak (2015eko urria-abendua bitarte)	18	171	1.640
Euskarabideko Euskaltegia, langile publikoei zuzendua	1	46	1.687
Hizkuntza eskola ofizialak (Iruñekoa eta Tuterakoa)	2	37	881
Zubiarte euskaltegia, publikoa herritar ororen esku dagoena	1	58	1.111
<b>Guztira</b>	<b>22</b>	<b>312</b>	<b>5.319</b>

Iturria: EUSKARABIDEA, 2016 (5).

Ikastegi publikoetako ikasle kopuruan goranzko joera nabari da, oro har. 2014-2015 ikasturtetik 2015-2016kora ikasle kopuruak goiti egin zuen, bai hizkuntza eskola ofizialetan (igoera % 10,45ekoa), bai langile publikoen Euskaltegian (% 1,2koa), bai Zubiarte euskaltegi publikoan (% 19,46koa). Horiek guztiak aintzat harturik, ikastegi publikoetan euskara ikasteko matrikulaturiko ikasleen kopuruak % 8,21 igo da.


Gizarte ekimeneko euskaltegiaren ikasle kopuruaren joerari dagokionez, ezin dugu alderaketarik egin ditugun datuak ikasturte bateko zati bati dagozkionak baino ez baitira.

Nabarmentzekoa da, bestalde, aukera aniztasuna eta dibertsifikazioa. Betiko moldeez gain (ohiko ikastaro estentsibo eta trinkoak ez ezik) aukera aniztasun handia dago: autoikaskuntza ikastaroak, mintzamina lantzeko taldeak eta ikastaro bereziak ahozko nahiz idatzizko trebetasunak lantzekoak.

Helduen euskalduntzearen esparruan emaitzak hobetzeko tarte handia dugu Nafarroan, arestian erran bezala, 4 nafarretatik hiruk euskara ez baitakide. Bestalde, hondar hamarraldian atzeritik Nafarroara bildu diren herritarrei (dagoeneko nafarren % 13,4 direnei) euskarara hurbildu eta hizkuntza ikasteko aukera ematea da aitzinean dugun beste erronka bat.

Euskaraz eskolatuta dauden ikasleei dagokienez, 2015-2016 ikasturtean 3 urteko haurren % 28,5ek D ereduan hasi zuen Haur Hezkuntza. Derrigorrezko irakaskuntzan (6-16 urteko ikasleen artean) % 26,5 D ereduan eskolatuta dago. Bilakaerari oharturik, ondoko taulak Haur eta Lehen Hezkuntza osorik (3-12 urte bitarte) harturik, publikoan nahiz hitzartuan, irakaskuntzako ikasereduek 1991etik 2015era izan duten bilakaera darakutsa:

**Hezkuntza ereduaren bilakaera (1991-2015). Haur eta Lehen Hezkuntza. Nafarroa**



Iturria: ALDASORO, 2016 (6)

Euskara kontuan hartzen ez duen G ereduaren beheranzko joera eta ingelesa (eta atzerriko bertze hizkuntzaren bat) irakasbide duten programen bilakaera goranzkoa aipatzekoak dira. Euskara irakasgai edo irakasbide duten ereduaren (A eta D hurrenez hurren) joera positiboa gelditu da azken ikasturteetan.

Orobat, beste irakaskuntza maileri dagokienez, euskaraz aritzeko aukerak zabaldu beharra antzematen zaie haur eskolei, lanbide heziketari nahiz unibertsitateari.

(6) ALDASORO, E. (2016). Nafarroako hizkuntza ereduaren bilakaera. Haur eta Lehen Hezkuntza, 1987-2016. Dokumentu argitaragabea.

**ZERBITZU PUBLIKOAK**

El Gobierno de Navarra tiene una plantilla de alrededor de 26.000 trabajadores y trabajadoras. Los puestos con conocimiento preceptivo de euskera son 2.835 (un 10,83 % del total de la plantilla). De ellos, la mayoría, 2.518, son docentes del Departamento de Educación. Los restantes 136 son personal administrativo (la mayor parte del Departamento de Educación), personal de traducción, personal médico y de enfermería. Así pues, exceptuando los docentes que han de saber euskera, solo el 0,8 % de los puestos de trabajo de la plantilla del Gobierno de Navarra tiene como requisito el conocimiento de esta lengua.


**Nafarroako Gobernuaren lanpostuak eta euskara jakin beharra duten lanpostuak**

Iturria: Euskarabidea, 2016.

	Lanpostu kopurua	Lanpostu guztiekiko portzentajea
Nafarroako Gobernuaren langile kopurua	26.184	
Euskara jakin beharra duten lanpostuak	2.835	% 10,83
Irakasle kopurua	8.054	
Euskara jakin beharra duten irakasleak	2.518	% 31,30
Euskara jakin beharra duten lanpostuak, hezkuntza kenduta: administrazioak, itzultzaileak, medikuak, erizainak...	136	% 0,80

Ondoko grafikoan Nafarroako Gobernuaren Departamentuetan dauden lanpostu elebidunen kopuruak ikus daitezke:

**Nafarroako Gobernuaren plantillan euskara eskakizuna dutenak departamentuen arabera. 2016**



Iturria: Euskarabidea, 2016.

Horrek ez du esan nahi funtzionario elebidunak euskara jakin beharra duten lanpostuetan bakarrik aurkituko ditugunik. Nafarren euskararen ezagutza Nafarroako Gobernuak bere lanpostuetan ezarrita duen euskara eskakizuna baino askoz altuagoa da. Beraz, zerbitzu publikoen arloan egiten den edozein planifikazio plantillaren azterketa eta diagnosi egokia egitetik abiatu beharko litzateke.



Nafarroako toki administrazioari (udalei eta mankomunitateei) begiratuta, egoera hizkuntza eremuaren arabera aldatzen da. Eremu euskaldunean udal eta mankomunitateek beren plantilla organikoetan halako hizkuntza eskakizunak ezarri ohi dituzte baina eremu mistoan (eta batez ere Iruñeko Udalean) askoz gutxiago dira euskara jakin beharra duten lanpostuak. Eremu ez-euskaldunean kopuru hutsala da.

Estatuko administrazioari dagokionez, azterketa ez dago egin baina ez dirudi lanpostu (itzultzaile) baten bat kenduta, euskara jakin beharra duen lanposturik izanen denik. Nafarroako Foru Administrazioan gaztelania eta euskara ezagutzea beharrezko duten lanpostuak zein eta zenbat diren ikusiz gero, bistan da egoera ez dela herritarrek legez aitorturik dituzten hizkuntza eskubideei erantzuteko aski.

## EUSKARA ARLO SOZIOEKONOMIKOAN

Nafarroako arlo sozioekonomikoan euskara sustatzeko deus gutxi egin da. Dena dela, zenbait saiakera burutu dira merkataritzan eta enpresetan euskararen erabilera piztearren. Mondragon taldearen sei enpresetan euskara plana dute eta Iruñerriko zenbait udalerritan merkataritza programak garatzen dira.

Berebat, Nafarroan 266 erakunde pribatu dira *Bai euskarari* programan daudenak: 43 zerbitzua nahiz lana euskaraz eskaintzen dutenak eta 114 zerbitzua euskaraz ematen dutenak. Gainerakoak ziurtagiria lortzeko bidean daude.

## 2.2 AMIA (Ahuleziak, Mehatxuak, Indarguneak eta Aukerak)

Nafarroan euskara zertan den itxuratzeko xedez, hona hizkuntzaren egoera aztertzeke AMIA metodologiak eman duen emaitza, esan nahi baita, euskarak Nafarroan dituen ahuleziak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak, laburki emanak.

AHULEZIAK		
POLITIKA	BALIOAK ETA PRESTIGIOA	JARRERAK
Ikuskera komuna garatzen uzten ez duen diskurtso ideologikoan harrapatutik.	Oraindik balio positiboak eta etorkizuneko balioak loturik ez dagoen hizkuntza.	Euskarari eman behar zaion garapenaren gainean jarrera eta itxaropen ezberdinak.
ESTRATEGIA	DISKURTSOA	BALIABIDEAK
Euskara Nafarroaren eragile eta ondare komuntzat jotzen duen estrategia argirik eta ikuskera partekaturik eza.	Euskara garatu, erabili eta ikastearen gaineko diskurtso bakarrak ez dago.	Baliabide ekonomikoaren gabezia.
IKASTEAK	IRAKASKUNTZA ETA GIZARTE BIZITZA	LANKIDETZA
Euskara ikasteko eta euskaraz eskolatzeko eskaera gelditu da.	Euskara irakastearen eta gizaratean erabiltzearen arteko segida ez dago ongi lotua.	Gizartearen ekimen anitz daude baina haien artean koordinazio eraginkorrik ez dago.
PRESENTZIA ETA ERABILERA		
Masa kritikoa oraindik txikia da.	Euskaldunak gutxi diren eskualdeetan hizkuntza sustatzeko zailtasun handiak daude.	Gizarte bizitzan euskarak duen toki txikia: <ul style="list-style-type: none"> <li>Hedabideetan</li> <li>Lan munduan</li> <li>Aisiarako aukeretan</li> <li>Familia artean</li> </ul>

## MEHATXUAK

KRISI EKONOMIKOA	LEGERIA	JARRERA KONFORMISTA
Krisi egoerak zailtasun handiagoa dakar.	Euskararen Foru Legeak ezartzen dituen mugak.	Gizartearen zati bat erlaxatu da Gobernu berria euskara garatzearen aldekoa dela ikusirik.
KONFRONTAZIOA	HEDABIDEAK	HEZKUNTZA
Gizartearen zenbait taldetan eta zenbait talde politikotan euskararen kontrako jarrera sutua.	Krisiaren eragina hedabideetan.	Nafarroako eskualde anitzetan euskara ikasteko edo euskaraz eskolatzeko dauden zailtasunak.
EKOIZPEN-JARDUERA	BESTE HIZKUNTZEKIKO HARREMANA	GOBERNU ALDAKETA
Produktuak eta zerbitzuak euskaraz kontsumitzen dituen masa kritikoa txikia da.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ingelesaren aldekoa den diskurtsoa, ingelese soilik defendatzen duena eta euskararen kontrako dena.</li> <li>Gaztelaniaren nagusitasuna.</li> </ul>	Hizkuntza eskubideen errespetua Gobernuaren kolore politikoaren arabera izatea.

## INDARGUNEAK

GIZARTEA	EGUNGO GOBERNUA	ETORKIZUNA
<ul style="list-style-type: none"> <li>Euskara biziagotzearen aldeko gizarate mugimendua.</li> <li>Gizaratea gero eta harroago dago bere hizkuntzaz.</li> </ul>	Egungo Gobernuak Nafarroako hizkuntzen berdintasunaren alde duen jarrera.	Euskarari aukera arrunt onak sortu zaizkio.
NORMALTASUNA	BALIABIDE EKONOMIKOAK	EUSKARABIDEA
Euskara presentzia eta normaltasuna irabazten ari da.	Galdutako baliabideak berreskuratzen ari dira eta euskararen aldeko ekimenei bide ematen ari zaie.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Planteamendu berria: erakunde aholku-emaile izatetik erakunde planifikatzailea izatera pasatu da.</li> <li>Baliabide gehiago.</li> <li>Euskararen lehen Plan Estrategikoa aitzina eramateko erabakia</li> </ul>
EUSKARAREN PRESENTZIA		HIZKUNTZA PAREGABEA
<ul style="list-style-type: none"> <li>Hirietan eta herri ertainetan euskararen presentzia handitu da.</li> <li>Euskaldunak oso gutxi diren eskualdeetan euskararen presentzia handitu eta errotu da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Kulturan, hezkuntzan, osasun arloan eta beste arloetan, euskararen presentzia gero eta handiagoa</li> <li>Erakundeetako ordezkariak eta arlo ezberdinetako pertsona garrantzitsuak euskaldunak dira.</li> </ul>	Euskarak hizkuntzatzat dituen ezaugarri paregabeak.



AUKERAK		
<b>GIZARTE ERAKUNDEAK</b>	<b>NAFARROAKO GIZARTEA</b>	<b>ERABILERA</b>
Euskararen aldeko gizarte erakundeek Gobernuari babesa ematen diote.	Nafarroako jendeak euskara hobeki hartzen du. Euskararen Nafar Kontseiluan gizaratearen parte-hartze handiagoa da eta eskumen gehiago hartuko ditu.	Hiriguneetan euskara dakitenak eta erabil dezaketenak gehiago dira.
<b>ARAUDIA</b>	<b>HEZKUNTZA</b>	<b>ADMINISTRAZIO PUBLIKOA</b>
Nafarroan euskara ikasi, erabili eta sustatzearen aldeko araudia hobetzeko aukera.	Euskarazko irakaskuntza, D eredua, Nafarroa osora zabaldu izana.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hainbat toki entitatek euskara ikastearen eta erabiltzearen alde egindako lana eta ahalegina.</li> <li>Gobernuaren babesa euskararen inbertitzeko.</li> </ul>
<b>PRESTIGIOA</b>	<b>EKONOMIA ERAGILEA</b>	<b>BERRIKUNTZA ETA ETORKIZUNA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Euskarak Nafarroaren elementu bateratzaitetako eta integratzailetako duen prestigioa hobetzeko aukera.</li> <li>Euskara gizaratearen balio positiboak estimatu behar dira.</li> </ul>	Euskara Nafarroari aberastasuna sortzen eta ekonomikoki garatzen lagunduko dion elementua izan daitekeela balioesteko aukera.	Euskara etorkizun, berrikuntza eta teknologia balioak dira.

## 03 Euskararako paradigma berria

### 3.1 Jauzi kualitatiboa

Aurreko atalean azaldutako diagnosiak euskararen egoeraren ahuleziak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak utzi ditu agerian. Gabeziak eta beharrak handiak dira eta hortik abiaturik, Plan Estrategiko honek euskara beste egoera kualitatibo batera eraman nahi du.

Euskararen ezagutzari dagokionez, diagnosian azaldu bezala, azken 25 urteotan —1991tik 2016 bitarte— (≥ 16 urteko) nafar euskaldunen ehunekoa 3,4 puntu hazi da (% 9,5 > % 12,9). Hala bada, abian den hizkuntzaren gizarte berreskuratzea azkartu beharra dago euskara ikasteko aukera nafar guztiei zabalduz. Bestalde, epe horretan, euskara zerbait dakitenean portzentajea 5,7 puntu igo da (% 4,6 > % 10,3), igoera batik bat eremu mistoan eta ez-euskaldunetan nabarmena dela. Beraz, euskaldun hartzaileei euskaraz jabetzeko prozesua burutzeko eta erabilerara jauzia egiteko —hau da, hiztun aktibo bihurtzeko— aukerak eta baliabideak eman eta ugaltzea behar zaizkie.

Edozein hizkuntzaren berreskuratze prozesuan gertatzen den bezala, euskararen egoeran ere belaunaldi berriak ahal den neurririk handienean eta baldintzarik hobereenetan hiztun bilakatzea berebiziko garrantzia du. Nafarroan, jaiotze tasa apalaren ondorioz, haurrek eta gazteek orain dela 25 urte baino pisu demografiko erlatibo txikiagoa dute, baina euskaldun ehunekorik altuenak dituzten adin taldeak dira. 1991n 16-24 urte bitarteko nafar gazteen % 10 baizik ez ziren euskaldun; egun berriz, ia % 26 dira. Hau da, euskarari irabazi demografikoak batik bat haur-gazteengandik datozkie. Beraz, hiztun horien beharrei ohartu behar zaie baitezpada. Euskara hiztun berriak familiaren bidezko hizkuntza transmisioari eta eskolatzeari esker lortzen ari da. Hori horrela, euskaldunen hazkundeari eutsiko bazaio euskarazko hiztun berrien hizkuntza jabetzeko bideak sendotu eta bermatu beharra dago. Diagnosian azalduenez, familia bidezko euskararen transmisioaren arloan gurasoen lehen hizkuntzaren arabera alde handiak daude eta, datuek darakutsatenez, guraso bat euskalduna duten familietan euskararen transmisioaren bermea hobetzeko dagoen tarte handia da. Eskolaren bidez euskalduntzen diren haurrei dagokienez, aukera hori Nafarroa osora zabaltzea eta ziurtatzea premia handia da. Berebat, ikasleei ikasgelatik kanpo hizkuntza ikasten segitzeko aukerak eman behar zaizkie, euskararen jabetza akademikoa ez ezik, lagunartekoa eta ludikoa ere izan dezaten eta etxekoa ez duten hizkuntza horretan ongi eta eroso mintzatzera irits daitezten. Hau da, belaunaldi berrien euskarazko sozializazio prozesua zaindu eta elikatu beharrean gaude.

Berebat, heldutan euskara ikasten dutenak aipatu behar dira, horiei ikasteko aukera Nafarroa osoan bermatzea eta aukera hori baldintzarik hobereenetan eskaintzea funtsezkoa baita. Horrekin bat, hondar urteetan atzerritik Nafarroara bildu diren herritarrei euskara bertakotzeko eta gure gizaratean sartzeko aukeratzat aurkeztu behar zaie, mintzairara hurreratzeko eta hartaz jabetzeko bideak erraztuz.

Euskararen erabilerari dagokionez, egun 16 urte edo gehiagoko nafarren % 7 inguruk euskara sendo erabiltzen du. Diagnosian azaldu bezala, azken 25 urteotan —1991tik 2016 bitarte— euskararen erabilera doi-doi hazi da (% 6 > % 6,6). Dena dela, hondar 5 urtekoan igoera nabarmenagoa izan da, 1,1 puntu (% 5,5 > % 6,6). Hazkunde hori euskara erdara beste erabiltzen dutenen artean gertatu da, eremu euskaldunetan eta mistoan batez ere.

Adinaren arabera, 2011tik hona euskararen erabilera 65 urtetik beheitiko adin talde guztietan igo da. Igoerarik handiena 25-34 urte bitartekoan artean gertatu da: + 3,1 puntu (% 5,7 > % 8,8). Gazteen erabilerak arreta berezia merezi du. Izan ere, adin talde horretan euskararen ezagutza berretu da (1991n % 10 ziren euskaldun eta 2016an % 25,8); erabilerari aitzitik, ez zaio halako bilakaera positiborik antzeman, gutxi gora-behera bere horretan baitirau (% 7 inguruan).

Gizarte erabilera hizkuntza baten bizitasunaren seinalea da eta azken hamarraldietan euskarak Nafarroan izan duen ezagutzaren igoera horrek erabilerara ekartzeko ahaleginak egin behar dira. Hala bada, egungo egoerak euskararen gizarte erabilerarako aukerak ugaltzea eta espazioak sortzea premia direla salatzen du.

Zerbitzu publikoetan euskaraz egiteko aukerak ematean Nafarroako Gobernuak erantzukizun bere-berea du. Herritarren hizkuntza eskubideak arautu eta begiratu behar dira Nafarroako administrazio publikoek edo izaera publikoko sozietateek zuzenean nahiz kontratazio bidez gizarteari eskaintzen zaizkien zerbitzuetan euskara erabiltzeko aukera modu eraginkorrean bermatuko bada. Horretarako, arauzko marko egokia osatu behar da. Hala berean, hizkuntzaren gizarte garapena planifikatu beharra dago eta hori ezin izanen da behar bezala egin euskarak Nafarroan duen egoera soziolinguistikoa, orokorra nahiz arlokakoa, aldian-aldian ezagutzen ez bada. Beraz, ikerlan soziolinguistikoak eta euskararen egoeraren bilakaerako adierazleak eskuratzen ahalbidetuko diguten neurketa eta azterketak egin beharko dira.

Euskara gizartearen arlo guztietan (arlotu sozioekonomikoan, aisialdian, merkataritzan, hedabideen kontsumoan...) erabiltzeko aukerak ugaltzeko bideak jorratu beharra nabaria da. Orobat, haur-gaztetxoan euskararen erabilera pizteko eta sendotzeko premia eta, euskararen ondorengoenganatzea lehentasuna dela, hizkuntza arlo ez-formalean (familian, lagunartean, auzo-bizitzan...) errotu behar larria dago.

Hizkuntza eremuen egoerari ohariturik, udalerrri euskaldunetan edo euskararen arnasgune diren lekuetan euskarak gizarte bizitzan duen nagusitasuna zaindu eta sendotu beharrekoa da. Hizkuntza orok kualitatiboki osoak eta trinkoak diren gizarte guneak behar ditu eta euskarak Nafarroan bereak baditu eta izaten segitu behar du. Horrekin batera, euskararen gizarte erabilera ahulen den eskualdeetan, erabilera handituko bada, neurri bereziak hartzea ezinbestekoa da.

Euskara sustatzearen aldeko jarrerari dagokienez, azken 25 urteotan aldeotasunak nabarmen igo bada ere (% 21,6 > % 33,3), euskara indartzearen kontra agertzen den herritarren ehunekoak (gainera, hondar 5 urtekoan hazi dena: % 34,5 > % 39,1) kontuan hartzekoa da. Bistan da horrek euskararen gaineko komunikazio lan berezia egitera behartzen duela hizkuntza politika instituzionala. Komunikazioa gakoak da euskararen gizarte irudia positiboki moldatzeko eta hizkuntzaren prestigioa goratzeko. Zeregin horretarako euskara herritar guztiei modu atseginean hurbiltzea, hizkuntzaren presentzia gizarte paisaian dinamizatzea, informazio eta komunikazio teknologietan mintzaira naturalki txertatzea eta halako ekimenak lantzea da bidea.

### 3.2 Euskararen gaineko ikuskera berria, hizkera berria

Diagnostikoaren prozesuan zehar jasotako ekarpenetan argi gelditu da euskararen gaineko irudi berri bat sortzeko premia, hain zuzen ere, Nafarroako balio positibo eta etorkizunekoekin lotzeko. Irudi horrek hizkera berria behar du, diskurtso berria eta hizkuntzaren gaineko ikuskera berria. Nafarroako Gobernuari dagokio, gizarte osoarekin bat, norabide aldaketa hau gidatzea.

Plan Estrategikoa euskara gaur egungo eta etorkizuneko Nafarroaren elementu bereizgarri bihurtzeko aukera da, hizkuntza orain arte inoiz promozionatu ez den esparruetan sartuz eta

elkartu nahi izan ez den elementuekin lotuz. Euskara baliogabetzen duten eta hizkuntzaren indarra murrizten duten eztabaida interesatuak daude eta premiazkoa da euskara hortik ateratzea, euskara ondare gisa agertu beharrean hizkuntza harekin zerikusirik ez duten gaien aldeko edo kontrako tresna bihurtzen duten erretoriketarik ateratzea. Premia horri erantzunez, euskararen eta euskarak Nafarroako gizartearen izan behar duen tokiaren gaineko paradigma berria proposatzen du Plan Estrategikoa honek.

#### EUSKARAREN GAINEKO PARADIGMA ETA IKUSKERA BERRI BATERANTZ

Nafarroak euskara berezko du, eta baliabide bat du aukeran, Plan Estrategikoa hau, hain zuzen ere, euskara herritarrendako baliabide erakargarri eta Foru Komunitaterako onura iturri bihurtzeko. Plan Estrategikoa honek proposatzen duen paradigma eta ikuskera aldaketa hau ondoko koadroan bildu da:

##### Nafarroan euskararen paradigma eta ikuskera aldatzeko proposamena

Gaiztatu beharreko ikuskera	Ikuskera berria
Bereizten duen hizkuntza	Batzen duen hizkuntza.
Zatitzen duen hizkuntza.	Biderkatzen duen hizkuntza.
Gastuari loturiko hizkuntza.	Inbertsioari loturiko hizkuntza, baliabidea dena.
Batez ere tradizioarekin eta iraganarekin loturiko hizkuntza.	Hizkuntza bat, era berean eta ez bairik gabe, etorkizunari, berrikuntzari eta gizarte globalari elkartua.
Inposizioari loturiko hizkuntza.	Askatasunari, errespetuari, herritarren hautatzeko eskubideari eta mailaz mailako garapenari loturikoa.
Tokiko hizkuntza.	Munduari irekita dagoen hizkuntza.
Ikasten zaila den hizkuntza.	Aise bereganatzen den hizkuntza.
Erabilera mugatuko hizkuntza.	Erabilera mugagabeko hizkuntza.
Gizarte gatazkari eta liskarrari loturiko hizkuntza.	Gizarteratzeko eta garatzeko balioei josiriko hizkuntza.
Lanerako duen erabilgarritasunaren gaineko eztabaida.	Hizkuntzak Nafarroari dakarkion balioaren eta aberastasunaren aitortzea.

Ikusmolde berri honek berarekin loturiko eredu bat eskatzen du. Eredu bat, abiaburu izan dena Nafarroako ordenamendu juridikoan euskarari aitortzen zaion balioa eta tresna eraginkorra izan dena Euskarari buruzko Legeak berak ezartzen dituen helburuak erdiesteko. Plan honek, gainera, proposatzen du gaztelaniarekin batera Nafarroako hizkuntza bereki den euskara Nafarroako garapena eta ekonomia mundu globalizatuan sustatzeko elementu eta baliabide gisa bultzatzea, helburu horren inguruan gizarte bere osotasunean bilduz.

Herrialde, eskualde eta hiri anitzek garatu dute elementu aglutinatzaile bat zeinaren inguruan sortu den toki horien gaineko ikuskera erakargarri bat munduarendako, turistez gain inbertsio ekonomikoa eta ezagutzaren transferentzia eta kontzentrazioa erakarriz, une oro elementu aglutinatzaile horrekin lerrokatutako ekimen ugariren bidez.

### 3.3 Eredua estrategikoa

Plan estrategikoa honek euskararen eta euskarak Nafarroako gizartean behar duen tokiaren gaineko paradigma berri bat proposatzen du. Planaren erdigunean, hain zuzen ere, Nafarroako herritarrak daude, gizarte osoa. Diagnostikoak herritarren premiak eta euskarara iristeko dauden gabeziak erakutsi ditu, bai eta azaleratu ere zer premiazkoa den hizkuntzaren egoera hainbat esparrutan hobetzea. Horri erantzunez, Nafarroako Gobernuak bere hizkuntza politika eredu estrategikoa berri batean egituratuko du.

#### 3.3.1 Ardatz estrategikoak

Plan Estrategikoaren konfigurazioak lau bloke handi ditu, zerbitzuak garatzen dituen erakunde baten logikari jarraikiz:

#### EREDU ESTRATEGIKOA



Planteamendu honen logika ondokoa da:

Lehenik eta behin (A), gizarte eskariari erantzun behar zaio, euskara erabiltzeko aukerak zabalduz, herritarrek euskara ikasteko duten nahia aseztu eta hizkuntza honetan zerbitzuak eskainiz. Eskaera piztu eta elikatu egiten da. Horregatik, bloke honek izaera proaktiboa izan behar du, ulertzen baita eskaintzak berak eskaria bistaratu eta sortu ere egiten duela.

Bigarrenik (B), euskararen gaineko ikuskera berria gizarteratuko da, mintzairaren irudiaren gaineko aldaketa positiboa lortzera eta interesa nahiz eskaera piztera bideratuta. Euskararen irudi berriak hizkuntzari prestigioa emanen dio eta baliabide edo balio erantsi gisa proiektatuko du, gizartearendako onura eta itzulkin sortzaile gisa.


A eta B blokeek elkar elikatzen dute, euskararen gizarte bizkortasuna indartuko duen eskariaren asetzeko eta hauspotze dinamika batean.

Hirugarrenez (C), programa honek araudi esparru bat eta informazio soziolinguistikorako iturriak eskatzen ditu, ekimen hauek guztiak gauzatzea ahalbidetu eta errazteko.

Azkenik (D), Euskarabideak erakunde gisa erantzun behar die Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika berriaren helburuei eta, beraz, nahitaezkoa da Plan Estrategikoaren inplementazioa bermatuko duen barne kudeaketako neurri multzo bat txertatzea: aurrekontua, giza baliabideak eta baliabide materialak, plan estrategikoaren beraren kudeaketa, etab.

Bi bloke nagusiek, gizarteari zerbitzuak emateari buruzkoa bata eta ikuskera berriari buruzkoa bestea, atal desberdinak dituzte. Atal hauek dira Planaren ARDATZ ESTRATEGIKOAK eratzten dituztenak, ondoko koadroan adierazten den gisan:

#### ARDATZ ESTRATEGIKOAK



### 3.3.2 Ardatz bakoitzaren leloa

Ardatz bakoitzarekin batera doazen leloek euskararen gaineko ikuskera berria adierazten dute, modu erraz eta ulergarrian. Hau da, leloak euskara gizarteko balio positiboak lotzen duen eta, aldi berean, euskara ikastera eta erabiltzera gonbidatzen duen ikuskera berriaren adierazpen xumea dira.

#### ARDATZ BAKOITZAREKIN BATERA DOAZEN LELOAK



Lelo hauen helburua da Planaren ardatz estrategiko bakoitzean islatzen den euskararen gaineko ikuskera berria indartzea. Leloak ele bitako formulazioa da: ardatza deskribatzen duen kontzeptua euskaraz adierazten da, eta gaztelaniaz azaltzen. Lelo bakoitzean gizartearendako baliagarria den kontzeptu bat proposatzen da, eta gonbita egiten da euskaraz nola esaten den ezagutzeko. Mekanismo honen bidez, gizarteratu eta herritarrekin konpartitu nahi beste kontzeptu baliagarri eta positibo sor daitezke.

## 04 Ardatz estrategikoak, helburuak eta ekintzak

#### Ardatz estrategikoak hauek dira:

1. Gizarte erabilera
2. Hiztun berriak
3. Zerbitzu publikoak
4. Prestigioa eta erakargarritasuna
5. Ekonomia eragilea
6. Hizkuntza esparrua
7. Euskarabidearen barne kudeaketa




Ardatz bakoitzean helburu nagusia eta helburu espezifikoak zehaztuko dira. Helburu espezifikoak ekintzak esleituko zaizkie, arloka sailkatuta.

7. ardatza, Euskarabidearen barne kudeaketaren gainekoa, ez da dokumentu honetan garatuko erakundearen antolaketari baitagokio. Ardatz honetan ezarritako ekintzak (17 ekintza) barne dokumentu batean jaso dira.

Lehen 6 ardatzak aintzat harturik, Plan Estrategiko honek 6 helburu nagusi ditu, 29 helburu espezifikotan aleturik. Horiek erdiesteko 173 ekintza zehaztu dira, 68 arlotan sailkatuta.

## 4.1 GIZARTE ERABILERA



# *Bizi, vivir en euskera*

Euskararen gizarte erabilera kontzeptu zabal eta dinamikoa da, gure bizitzaren arlo gehienak barne hartzen dituena. Hori dela-eta, ardatz honetan gizarte bizitzaren hainbat arlo aintzat hartu ditugu (aisialdia, kirola, hedabideak, merkataritza-ostalaritza, zerbitzu profesionalak...), euskararen gizarte erabilera horietan guztietan gauzatzen delakoan. Arlo horiek gainera, ez dira banaka eta isolaturik lantzekoak, elkarri loturik eta elkarreraginean kudeatu eta garatu beharrekoak baizik.

Euskara mintzaira bizia da baina gizartean presentzia mugatukoa (ez baita gaztelania bezalakoa, ezagutza unibertsalekoa; eta ez baitago gaztelania bezain hedaturik gizartean). Euskararen erabilera ez da guztiz hiztunaren hautuzkoa, aitzitik, hainbat aldagairen mende dago. Aldagai batzuk hiztunari dagozkio (hiztunak euskaraz egiteko duen gaitasuna edo erraztasuna, esaterako), baina beste batzuk ingurunearen araberakoak dira, adibidez, harremanetarako euskarazko hiztun-sarea izatea, hau da, familian, lagun taldean eta auzoan, plazan nahiz lantokian euskaldunak izatea.

Azken hamarkadetan euskaraz dakiten herritarren kopurua hazi da (belaunaldi gazteetan batik bat) eta horrek euskaraz gizartean duen presentzia handitzea ekarri behar du. Hala izan dadin, hiztunek ez dute euskaraz mintzatzeko traba, eragozpen nahiz arazorik topatu behar. Hala bada, euskararen gizarte bizitasuna hauspotzeko, euskaldunei arlo guztietan mintzaira erabiltzeko aukerak sortu behar zaizkie.

Herritarrek euskara erabiltzeko aukerak eta espazioak behar dituzte, bai eta euskarazko produktuak eta baliabideak ere, eta ardatz honetako helburuek horra jotzen dute, hizkuntzarako erabilera uneak eta guneak sortu eta indartzera, batik bat haur-gazteei zuzendutako gizarte jardueretan. Bestalde, euskaldun hartzaileak berretu dira eta horiek aktibatzen eta euskarazko komunikazioetan parte harrarazteko bideak jorratu beharrean gaude.

Nafarroan euskaraz egoera soziolinguistiko aski desberdinak ditu eta horietarako guztietarako erantzun egokitu eta neurrikoak eman behar ditu Plan Honek. Euskaraz dituen arnaguneei edo udalerrri euskaldunei dagokienez, leku berezia eman nahi izan zaie ardatz honetan. Herri euskaldunetako biztanle gehienek euskaraz badakite eta egunerokoan euskaraz ihardukitzen dute baina herri koskorak izanda aldaketa sozioekonomiko edo demografiko ttipienak ere gizarte harreman sareak molda ditzake eta hizkuntzaren bizitasunari eragin. Herri euskaldunetan euskaraz duen egoera ona ahul eta hauskorra ere izan daiteke, babesten ez bada.

Orobat, euskararen gizarte erabilera apal-apala den udalerrietan ere esku-hartze bereziak behar dira hango euskaldunei hizkuntza egunerokoan erabiltzeko aukerak sortzeko.



**HELBURU NAGUSIA:** Euskararen erabilera igotzea, hiztunek gizarte arlo guztietan erabil dezatela erraztuz eta euskararen erabilera errazagoa eginez.

## HELBURU ESPEZIFIKOAK ETA EKINTZAK

### 1. Euskarazko jardueren eskaintza handitzea, hizkuntzaren gizarte erabilera aktibatzeak eta indartzeko.

ARLOAK	EKINTZAK
<b>Eskaintza eta gizarte erabilerarako aukerak handitzea</b>	<p>Foru Administrazioak berak kulturaren eta kirolaren esparruan eskaintzen dituen jardueren eskaintza indartzea eta handitzea, aski izan dadin, Nafarroako Gobernuako departamentuek garatzen dituzten programetan (Gazteriaren Planean, Kultura Planean, kirol federazioekiko harremanetan eta abarretan) hizkuntza honen erabilera sustatzeko irizpideak sartuz.</p> <p>Tokiko entitateek kulturaren, kirolaren eta aisiaren arloetan antolatzen dituzten euskarazko jarduerak laguntzea eta bultzatzea.</p> <p>Gizarte eragileek egindako euskarazko jarduerak laguntzea, auzogintzan zein zerbitzuen arloan ematen den eskaintza handitzeko.</p>
<b>Erabilera sustatzea</b>	<p>Euskararen erabilera normalizatzerako bideraturiko ekintzak (kanpainak, materialak, etab.) sustatzea, euskara edozein egoeratan erabiltzea bidezko eta egokia dela gizarteratzeko.</p> <p>Euskararen gizarte erabilera urria den eremuetan programa bereziak bideratzen laguntzea, euskararen erabilera naturala pizteko</p>
<b>Erabilera aktibatzea</b>	<p>Euskara ulertzen den baina erabiltzen ez den egoera edo gizarte taldeetan euskararen erabilera areagotzeko ekimenak garatzea (berariazko ikastaroak, kanpaina materialak, etab.).</p> <p>Euskararen gizarte presentzia hiztun kopuruak bermatzen ez duen eremuetan, berariazko ekimenak garatzea, hizkuntzak nolabaiteko intentsitatea duen egoera eta espazioak erreferentziakoak izan daitezen eta erabilera aukerak handitu daitezen.</p>

### 2. Eskolaz kanpoko eta aisialdi antolatuko arloaren eraginkortasuna handitzea euskaraz eskolaturiko haur eta nerabeen artean eta euskarazko eskolatzetik datozen gazteen artean euskararen erabilera areagotzeko.

ARLOAK	EKINTZAK
<b>Gizarte eragileak kontzientziatzea</b>	<p>Arloko eragileekin (klub eta kirol federazioekin, aisia eta kultura elkarteekin eta halakoekin) estrategiak lantzea eta garatzea, egiten dituzten jardueretan euskararen erabilera sustatzeko orduan duten eraginkortasuna hobetzeko.</p>

<b>Hizkuntza irizpideak</b>	<p>Baldintza agirietan neurriak sartzea bermatzeko euskarak aski presentzia eta erabilera izan duela aisiaren, kulturaren eta kirolaren arloan diruz lagunduriko jardueretan.</p> <p>Diru publikoz laguntzen diren programetako begirale, hezitzaile, entrenatzaile, dinamizatzaile eta halakoen kontratazioetan hizkuntza irizpideak txertatzea.</p>
<b>Prestakuntza</b>	<p>Hizkuntza dinamizazioko prestakuntza ekintzak egitea monitore, hezitzaile, entrenatzaile edo antzekoekin, egiten dituzten ekintzetan euskararen erabilera susta dezaten.</p> <p>Monitore, hezitzaile eta entrenatzaileei hizkuntza prestakuntza tekniko eta baliabideak ematea (berariazko hiztegiak, ikastaroak, materialak, etab.).</p>
<b>Gazteen artean erabilera sustatzea</b>	<p>Aisialdi antolatuen arloan nerabeei eta gazteei interesatzen zaizkien euskarazko jarduerak bultzatzea.</p> <p>Gazteen artean euskaraz egitea balio positibotzat indartzeko eta hala ikusaratzeko jarduerak antolatzea (lehiaketak, hausnarketa saioak, berariazko lantegiak, etab.).</p>

### 3. Euskarak komunikaziorako tresna teknologikoetan duen presentzia handitzea, hizkuntzaren gizarte erabilera sustatzeko, euskararen erabileran beste zeinahi hizkuntzarena bezain erraza eta samurra eginez.

ARLOAK	EKINTZAK
<b>Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak (IKT)</b>	<p>Euskaraz egindako edo euskara ere baduten aplikazio, programa (softwarea, bilatzaileak, etab.) eta produktuen garapena eta eskaintza handitzen laguntzea, erabiltzaileen artean erabilera errazteko eta sustatzeko.</p>
<b>Sare sozialak</b>	<p>Interneten dauden informazio guneetan (Wikipedian, kasu) euskarazko argitalpenak areagotzeko ekimenak laguntzea.</p>

### 4. Euskarazko hedabideen eskaintza eta erdaraz diren hedabideetan euskarak duen tokia zabaltzea, herritarrei euskarazko informazioa eskuragarriago eta errazago paratzeko.

ARLOAK	EKINTZAK
<b>Euskarazko hedabideak</b>	<p>Formulak ezartzea (hitzarmenak, laguntza deialdiak, etab.) euskarazko hedabideen finantzaketa hobetzeko.</p> <p>Foru Administrazioaren eta sektorearen arteko lankidetzak guneak sustatzea euskarazko hedabideen arloaren beharrei hobeki erantzuteko.</p> <p>Euskarazko hedabideen eskaintza egokia eta kalitatea bermatzeko formulak aztertzea.</p> <p>Euskarazko hedabideen eskaintza herritar guztiengana heltzeko dauden hutsunak betetzeko ekimenak bultzatzea.</p> <p>Haur eta gazteendako ETB3 kanal tematikoa Nafarroa osoan har dadin bultzatzea.</p>



<b>Gaztelaniazko hedabideak</b>	Hedabideen programazioan euskararen presentzia sustatzea, laguntza deialdi bidez.
	Finantzaketa publikoa jasotzen duten hedabideek ekoizpenaren zati bat euskaraz egin dezaten arautzea.

## 5. Saltokietan, zerbitzu profesionaletan eta enpresetan euskararen presentzia eta erabilera areagotzea.

ARLOAK	EKINTZAK
<b>Sustapen ekimenak</b>	Lan munduan euskara planak abian jar daitezen laguntzea, zerbitzua euskaraz emateko. Enpresek euskaraz eskaintzen dituzten zerbitzuak areagotzeko ekimenak garatzea. Euskara saltokietako hizkuntza paisaian sustatzeko ekintzak abian jartzea (kartelak, webguneak, liburuxkak, irudi korporatiboa, etiketak, etab.). Arlo sozioekonomikoko diru-laguntza deialdietan hizkuntza irizpideak txerta daitezen aztertzea.
<b>Lankidetzak</b>	Merkataritza arloan euskararen erabilera handitzeko kanpainak antolatzea, toki entitateekin lankidetzan. Elkargo profesionalekin eta merkatarien elkarteekin eskaintzen diren euskarazko zerbitzuak ezagutzera emateko aukerak aztertzea. Sindikatuaren ordezkariekin, enpresaburuen elkarteekin, kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteekin eta euskalgintzako ordezkariekin topaguneak sortzea euskara sustatzeko bideak aztertzea.
<b>Prestakuntza eta baliabideak</b>	Enpresetako langileei euskarazko prestakuntza eta etengabeko prestakuntza euskaraz errazteko aukerak aztertzea. Euskara sartzera Nafar Lansare - Nafarroako Enplegu Zerbitzuak egiten duen prestakuntza eskaintzan. Euskaraz lan egiteko behar diren baliabideak prestatzea eta identifikatzea (hiztegi digitalak, agiri ereduak bankuak, berriazko webguneak, etab.) eta profesionalei ezagutaraztea. Lan munduko erakunde eta enpresei zuzendutako arreta gune bat sortzea, euskararen erabilerarekin loturiko kezka, zalantza eta beharrei erantzuteko.

## 6. Euskarazko sormenezko kultura produktu eta jardueren eskaintza zabaltzea euskararen bidez hitzunak bizi duen esperientzia estetiko eta zirrarakoa euskararen erabileraren sendogarria izan dadin.

ARLOAK	EKINTZAK
<b>Kultura sorkuntza</b>	Euskarazko sorkuntza bultzatzeko ekimenak abian jartzea (diru-laguntzak, sariak, lehiaketak, etab.).

<b>Kultura kontsumoa</b>	Euskarazko kultura ekoizpenak ikusgarri egiteko eta haien kontsumoa sustatzeko jarduketak garatzea. Nafarroa osoko herritarrek euskarazko kultura eskaintza izan dezaketela ziurtatzeko neurriak hartzea. Euskarazko kultura produktuak (musika, zinema, antzerkia, literatura, etab.) adin tarte guztietako herritarrengana iristen direla bermatzea.
--------------------------	--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------


## 7. Udallerri euskaldunetako edo euskararen arnaguneetako euskararen erabilera indartzea, aurrerantzean ere euskaraz segi dezan izaten eskualde horietako gizarte-bizitza ardatzen duen elementua.

ARLOAK	EKINTZAK
<b>Udallerri euskaldunak</b>	Politika espezifikokoak eta planak garatzea herritarren gehiengoak euskara dakien eta erabiltzen duen udallerrietan, euskararen gizarte erabilera indartzeko eta haren funtzio estrategikoa bultzatzeko, betiere herritar guztien hizkuntza eskubideak bermaturik. Udallerri euskaldunetan zerbitzu publikoak euskaraz ematen direla bermatzeko neurriak hartzea. Merkataritza eta lan munduan euskararen erabilera naturaltasunez bultzatuko duten programak abian jartzea. Udallerri euskaldunetan euskara ez dakiten herritarrei euskara hurbiltzeko programak abian jartzea, toki entitate horiekin batera. Proiektuak eta garapen planak onesteko prozeduretan neurriak sartzera eskualdeko egoera soziolinguistikoan izan dezaketen eragina ebaluatu ahal izateko.

## 8. Nafarroako euskalkiak eta euskararen aldaerak zaintzea, garatzea eta hedatzea, herritarrek ezagutu, balioetsi eta erabil ditzaten.

ARLOAK	EKINTZAK
<b>Euskalkiak eta aldaerak</b>	Euskalkiak eta bertako euskararen aldaerak modu erakargarrian ezagutzera emateko dibulgazio ekintzak garatzea. Euskara batuaren baliagarritasunaren ondoan Nafarroako euskararen mintzamoldeen baliagarritasun komunikatiboa agerian jartzeko ekimenak garatzea, batik bat horiek bizi-bizirik dauden tokietan.
<b>Ondare materiagabearen digitalizazioa eta hedapena</b>	Nafarroako euskarazko kultura ondare materiagabearen digitalizazioa eta herritarren eskura uztea bultzatzea. Mediatekako funtsen zabaltze didaktikorako proiektuak gauzatzea: euskal hizkeren soinudun grabazioak eta ikus-entzunezko grabazioak eta Nafarroako euskalkietako testu idatziak.

## 4.2 HIZTUN BERRIAK



# Ongi etorri, bienvenida en euskera

Euskarak hiztun berriak irabazteko hiru bide nagusi ditu: hezkuntzaren bidezko hizkuntza jabetza, familia bidezko mintzairaren transmisioa eta helduen euskalduntzea. Hiru bide horiek elkar osatzen dute eta elkarri laguntzen diote. Hori horrela, hiztun berriak erdiesteko bideak batera kudeatzea egoki ikusi du Plan honek.

Euskaraz jabetzeko bideetan nagusia euskarazko hezkuntza da. 4/2015 Foru Legeak, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatzen duenak, eremu ez-euskaldunean ere familiei haurrak hezkuntza sistema publikoan euskaraz —D ereduan— eskolatzeko aukera eman zien. Lege horren aplikazioa hasi berria da eta Plan Estrategiko honek D eredia eremu ez-euskaldunera zabaltzea eta bertan errotzea du helburuetako bat. Horrekin bat, Nafarroa osoan euskarazko hezkuntza sustatu eta azkartu nahi da.

Etxean euskaraz egiten ez duten familietako haurrei dagokienez, euskarazko hiztun bilakatzeko prozesua sendotu eta osatu behar zaie. Irakaskuntza mailetan ikasgelaz barneko nahiz kanpoko jarduerak eskaini behar zaizkie ikasleei euskara ikasi eta komunikazio gaitasuna berengana dezaten. Hizkuntza jabetza horrek mintzairaren bizipen eta oharren osoa ematen die neska-mutikoei, akademikoa nahiz soziala eta ludikoa ere.

Bigarrenik, anitzetan haurren euskarazko hiztun bilakatzeko bidea etxean eta familian hasten da. Familiaren arloan dauden hizkuntza transmisiorako eta sozializatorako aukerak landu behar dira familia tipologia soziolinguistiko guztiei oharturik.

Buruenik, heldu jendearen euskara ikastea ere izan da, eta bada, euskarazko hiztunak irabazteko funtsezko bidea. Hala nahi duten helduei euskara ikastea (eta euskaraz alfabetatzea) Nafarroa osoan ahal den baldintzarik hobereenetan bermatzea da xedea. Orobat, euskaraz jabetzeaz gain, euskaltegietan edo bestelako euskara ikastegietan aritzen diren ikasle helduen ikaste prozesua sendotzea eta erabilerarako jautzia egin dezaten erraztea ere izanen da jomugan.

Asmo horretan ezin ahaztu azken hamarkadetan atzerritik Nafarroara bildu diren *nafar berriak*. Herritar horiei euskara gure artean bertakotzeko, integratzeko eta egoki bizitzeko baliabidetzat aurkeztu behar zaie bai eta mintzairara hurbiltzeko erraztasunak eman ere.

Finean, euskarazko hiztun berriek —izan haur, izan heldu—, hizkuntza berenganatzeko prozesuan daudenek, euskaraz jabetzera iritsiko badira, mintzaira bizitzan txertatzeko aukerak behar dituzte. Horrela eta ez bestela, hiztun berriak hiztun aktibo bilakatuko dira.

**HELBURU NAGUSIA:** Euskarak hiztunak irabaztea, haurrak nahiz helduak euskarazko hiztun bilakatzeko prozesua Nafarroa osoan eta baldintzarik hoberenetan bermatzen.

## HELBURU ESPEZIFIKOAK ETA EKINTZAK

**1. Orokortzea herritar orok euskaraz eskolatzeko duen aukera, hezkuntza inklusiborako elementu den aldetik. Horrela, beren seme-alabek euskaraz ikastea nahi duten familiek kalitatez izanen dute bermatua hautu hori Haur Hezkuntzatik hasi eta irakaskuntzaren goi mailaraino.**

ARLOAK	EKINTZAK
<b>Haur Hezkuntza (lehen zikloa [0-3 urte] eta bigarren zikloa [3-6 urte])</b>	<p>Lehen zikloan (0-3), abian jartzea Nafarroa osoan euskarazko murgiltze-programan eskolatzeko aukera bermatzeko behar diren neurriak.</p> <p>Bigarren zikloan (3-6), behar diren neurriak hartzea Nafarroa osoan euskarazko murgiltze-programan (D eredu) eskolatzeko aukera bermatzeko.</p> <p>Euskarazko matrikulazioaren aldeko kanpainak egitea gizarte eragile publikoekin zein gizarte ekimenekoekin batera, euskarazko eskolatzeko sendotzea helburu duen komunikazio estrategia iraunkorrean oinarritua.</p>
<b>Derrigorrezko Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Unibertsitatea</b>	<p>Lanbide Heziketako euskarazko heziketa zikloen eskaintza handitzea.</p> <p>Nafarroako unibertsitateetan euskaraz ikas daitezkeen kredituen kopurua emendatzea.</p> <p>Euskarazko eta euskararen irakaskuntzaren (hurrenez hurren, D eta A eredu) jarraitutasuna bermatzea derrigorrezko hezkuntza guztian eredu horien aldeko hautua egin duten ikasleei.</p> <p>Ikastetxeetako hizkuntza proiektua eguneratzea, bertan planifikatzeko ikasgelako euskararen ikaskuntza-irakaskuntza (metodologia, hizkuntzen tratamendu integratua, etab.) eta ikastetxeko jardueretan izanen duen erabilera (ikastetxeko jarduera osagarriak, jantoki, jolastoki, liburutegi eta halako eskola guneeetan izanen duen erabilera, etab.).</p> <p>Ikasleengan eta hizkuntzaren erabilera komunikatiboan oinarrituriko metodologia erabiliko dela bermatzea, jarduera parte-hartzaileen bidez (txokoen, proiektukako lanen eta halakoen bidez).</p> <p>Ikasleen euskarazko ahozko gaitasun komunikatiboa hobetzeko asmoa duten programa eta materialak sortzea.</p> <p>Gizarte errealitatea eta hurbilen dagoen ingurunea ikasgelara ekarriko duten jarduerak sustatzea (laneko esperientziak transmititzea, adinekoen bizipenak, etab.), euskarak gizartean duen errealitatea ikasleen ikasprozesua finkatzen lagunduko duen elementu bihurtuz.</p> <p>Euskara helduen irakaskuntza arautuko eskaintzan sartzea.</p>

<b>Irakasleen prestakuntza</b>	<p>Prestakuntza eskaintza areagotzea, irakasleen euskarazko gaitasun komunikatiboa hobetzeko, kontuan izanik euskararen tokiko aldaeran prestakuntza (halakorik badenean) eta ikasgelan eta ikastetxean izan behar duen erabilera.</p> <p>Euskara irakasleek hizkuntzen didaktikaren arloan duten etengabeko prestakuntza sendotzea, ikasleen komunikazio gaitasunak hobetzeko eraginkorrakoak izan daitezkeen.</p> <p>Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleen unibertsitate masterrean Euskal Hizkuntza eta Literaturako irakasle espezialitatea eskaintzeko aukera aztertzea.</p> <p>Bigarren Hezkuntzako Euskal Hizkuntza eta Literaturako irakasleek Euskal Filologia, Euskal Ikasketak edo euskara barne duen Itzulpenegintza edo Interpretazio titulazioa izan dezatela bermatzea.</p> <p>Aztertzea euskararen C2 maila egiaztatzen duen ziurtagiria Nafarroan eskaintzeko aukera.</p>
<b>Material didaktikoak</b>	Hezkuntza etapa guztietarako euskarazko baliabide didaktikoak sortzen edo egokitzen direla ziurtatzea, bermatuz eskura jartzen direla modu praktikoan.
<b>Orokortzearen bermea</b>	Garraio eta jantokirako laguntza ematea eremu misto eta ez-euskaldunean D eredu matrikulatzen diren ikasle guztien kasuan, ikaslearen herrian ez bada eskaintzen eredu hori; gauza bera euskarazko eskaintza publikorik ez izanagatik beren eremutik nahitaez mugitu behar duten ikasleendako.
<b>Gizarte titulatasuneko ikastolak</b>	Ikastolen egungo eta etorkizuneko egoera aztertzea, batik bat eremu ez-euskaldunean daudenena, hainbat hamarkadatan euskara normalizatzeko egin duten ekarpenaz jabetuta.

**2. Haurrak eta nerabeak euskarazko hiztun bilakatzeko eta euskaraz sozializatzekeo prozesua sendotzea eskolaz kanpoko hezkuntza arloetan, batik bat aisialdi eta kirol jardueretan; haur-gaztetxoek euskaraz berez, aise eta eroso komunikatzeko.**

ARLOAK	EKINTZAK
<b>Erabileraren bitartez ikastea</b>	<p>Eskolaz kanpoko aisialdi eta kirol jardueren euskarazko eskaintza handitzea ikastetxean berean, euskaraz eskolaturiko haurrek aukera handiagoa izan dezaten mintzaira hori ikasgelatik kanpo erabiltzeko.</p> <p>Berriazko eskolaz kanpoko ekintzak egitea ikastetxean berean, euskara irakasgai gisa ikasten duten haurrek (A eredu) sendotu dezaten euskararen ikaskuntza jolasaren eta dibertsioaren bidez.</p>
<b>Hizkuntza ohiturak finkatzea</b>	Euskara ikasten ari diren ikasleei aukerak eskaintzea komunikazio gaitasuna handitzeko esparru ez-formalean eta lagunartekoan, horrela, erabilera ohiturak finka ditzaten (lantegiak, lehiaketak, ginkanak, etab.).
<b>Hezitzaile-monitoreen prestakuntza</b>	Monitore-hezitzaileek hizkuntza dinamizazioko prestakuntza ekintzak egin ditzaten laguntzea, egiten dituzten heziketa jardueretan euskararen erabileraren kalitatea bermatzeko.
<b>Hizkuntza erabileren azterketa</b>	Hala eskola barnean nola eskolatik kanpo haurren eta nerabeen hizkuntza erabileren azterketa sistematikoa egin ahal izateko datu-bilketarako sistema bat ezartzea.

### 3. Familien barneko harremanetan euskararen erabilera handitzea, euskaraz eskolatzen diren haurren eta gurasoen arteko harremanetan euskara sartzeari, horiendako guztiendako hizkuntza ikastearen eta erabiltzeko motibazioaren indargarria izateko.


ARLOAK	EKINTZAK
<b>Baliabideak</b>	<p>Euskara dakiten zein ez dakiten gurasoek beren seme-alabekin dituzten komunikazio premiei behar bezala erantzuteko estrategia eta ekimenak prestatzea (baliabideen webgunea, informazio eskaintza, gurasoen foroa, esperientzia trukea, tailerrak, etab.).</p> <p>Familien euskararen erabilera sustatzeko komunikazio materialen eskaintza handitzea (audioipuinak, bideoak, hezkuntza jolasak, etab.) eta eraginkortasunez eskaintzea gurasoei, erabili ditzaten eta haurren ikaskuntza indar dezaten.</p>
<b>Familiei informazioa ematea</b>	<p>12 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoendako euskarazko hezkuntza eta sozializazio bideen gaineko kontzientziario nahiz sensibilizazio saiok antolatzea.</p> <p>Gurasoek eta umeez euskara normaltasunez erabiltzen hasteko familiendako guneak sortzea eta dinamizatzea (Gurasolagun programa, kasu).</p>

### 4. Helduen euskarazko ikaskuntza handitzea eta bermatzea Nafarroa osoan, arlo honetako eragile eta entitateen lana lagunduz, ikastegian hasteko baldintzak erraztuz eta ikastetik erabilera aktiborako trantsizioa bultzatuz.

ARLOAK	EKINTZAK
<b>Eskaintza orokortzea</b>	<p>Helduak euskalduntzeko ikastegiak gizartearen eskariari erantzuten diotela ziurtatzea, hurbiltasun geografikoari eta arazoizko kostuari dagokienez.</p> <p>Helduak euskalduntzeko eta alfabetatzeko zentro publikoek eskariari erantzuten diotela ziurtatzea.</p> <p>Autoikaskuntza programak sustatzea, bereziki euskarak presentzia sozial txikiagoa duen eskualdeetako ikasleendako.</p>
<b>Koordinazioa eta lankidetzak</b>	<p>Helduak euskalduntzeko eta alfabetatzeko Nafarroako entitateen egonkortasuna bermatzeko neurriak ezartzea.</p> <p>Helduen euskalduntzearen arloko Nafarroako eragileekin elkarlanerako gunea sustatzea, arloko beharrak aztertuta, hartu beharreko neurriak adostu eta araudian jasotzeko.</p> <p>Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin eta Euskararen Erakunde Publikoarekin (Office Public de la Langue Basque erakundearekin) lankidetzak sustatzea helduen euskalduntzearen arloan.</p>
<b>Trantsizioa ikastetik erabiltzera</b>	<p>Euskara ikasleak hiztun aktibo bilakatzea helburu duen irakaskuntza eredu bultzatzea.</p> <p>Heldutan euskara ikasten dutenei euskaraz egiten has daitezten eta hiztun aktibo bilakatzen lagunduko dieten programak antolatzen eta zabaltzen babestea (Mintzalagun programa, kasu).</p>

### 5. Kanpotik Nafarroara etorritako herritarrek euskara ikas dezaten sustatzea eta horretarako modua ematea, bultzatuz euskara ikus dezatela haiek eta haien seme-alabek bertakotzeko eta bizimodua hobetzeko baliabide gisa.

ARLOAK	EKINTZAK
<b>Kanpotik Nafarroara etorritakoak</b>	<p>Berriazko programak garatzea beste toki batzuetatik etorritako familietako nerabeei euskara hurbiltzeko.</p> <p>Kanpotik etorritako gurasoei euskararen gaineko informazioa, euskara ikasteko modua eta hizkuntzaren gaineko baliabideak emateko programak abiatzea.</p> <p>Aisiaren arloan bertako nafarren eta etorri berrien arteko esperientzia komunak partekatzeko foroak sortzea, aukera emateko elkarren kultura ondarea balioesteko, hizkuntza aniztasuna baloratzeko eta, batik bat, euskara nafar hizkuntza den aldetik ezagutzeko eta balioesteko.</p>

**4.3 ZERBITZU PUBLIKOAK**

# Zerbitzua, servicio en euskera

Dokumentu honen 1. atalean azaldu bezala, Plan Estrategikoaren lege markoa Euskarari buruzko Foru Legea eta Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna dira. Arau horiek Nafarroako herritarrei euskararekiko eskubide batzuk aitortu dizkiete eta, bidenabar, Administrazio Publikoei herritarren eskubideekiko betebeharrak ezarri.

Ardatz estrategiko honetan administrazio publikoek herritarrei zuzentzen dizkieten zerbitzuak ditugu, zerbitzu publikoak, alegia. Horietan hizkuntza eskubideak begiratu beharrekoak dira eta horretarako, administrazioek dituzten betebeharrak egoki erantzuten badiete, lana planifikatu beharra dago.

Jorratzea proposatu dugun lehen arloa Foru Administrazioaren azterketa da: plantillaren diagnostika eta lanpostu elebidunen definizioa; hau da, langileen artean dagoen euskararen ezagutza eta lanpostuen komunikazio beharrak ezagutzea, Nafarroako bi hizkuntzak jakin beharra dutenak zehazteko. Horrekin batera, hizkuntza plangintza lantzea nahitaezkoa da, euskara Foru Administrazioaren ekintza orotan sartzeko; zeharka, departamentu guztiek euskara erabiltzeko duten erantzukizuna bere egiten dutela; eta modu proaktiboan, herritarrei hizkuntza hautua egitea ahalbidetzen zaiela. Funtzionarioen euskarazko prestakuntza, itzulpen zerbitzua eta euskara gutxi-asko dakiten funtzionarioak aktibatzeak eta haien euskarazko produktioa sustatzeko bitartekoak ere landuko diren arloak dira.

Foru Administrazioa ez ezik, toki administrazioa eta Nafarroan kokatutako Estatuko Administrazioa ere aintzat hartu dira ardatz honetan eta haiekin lankidetzara markoa ezartzea aurreikusi da.

**HELBURU NAGUSIA:** Administrazio publikoak zerbitzua euskaraz emateko gaitzea eta zerbitzu publikoetan euskararen eskaintza handitzea.

## HELBURU ESPEZIFIKOAK ETA EKINTZAK

### 1. Langileek duten euskararen ezagutza mailaren diagnostiko osoa egitea eta elebidunak izan behar duten lanpostuak identifikatu eta zehaztea. Informazio hori erabiltzea Foru Administrazioaren hizkuntza plangintza egiteko.

ARLOAK	EKINTZAK
<b>Langileek duten euskararen ezagutza mailaren diagnostikoa</b>	Langile guztiek duten euskararen ezagutza mailaren azterketa egitea. Informazio hori Administrazioaren hizkuntza plangintzaren oinarria izanen da.
<b>Lanpostu elebidunak identifikatu eta zehaztea</b>	Lanpostu bat elebidun gisa zehazteko irizpideak prestatzea.  Plantilla organikoa aztertzea lanpostuen komunikazio beharrak zehazteko eta elebidunak izan behar duten lanpostuak identifikatzeko, baita lanpostu horietarako eskatu behar den euskara maila zehazteko ere. Informazio hori plantilla organikoan sartu eta eguneratuko da.  Finkatutako lanpostu elebidunen kopurua gehitzea plantillan, herritarren hizkuntza eskubideei behar bezala erantzuteko.

### 2. Foru Administrazioaren departamentuak hobeki gaitzea gizarteak zerbitzua euskaraz jasotzeko.

ARLOAK	EKINTZAK
<b>Zerbitzu nagusiak eta ele biko ibilbideak</b>	Zerbitzu nagusiak (zerbitzua Nafarroako herritar guztiei ematen dietenak) identifikatzea eta horietan ele biko ibilbideak ezartzea, lehentasuna emanez herritarrekin harreman handiena dutenei, hizkuntza hautatzeko eskubidea gauzatu dadin.  Ele biko ibilbideen ezarpena ebaluatzea, haien eraginkortasuna eta zerbitzu nagusi guztietara hedatzeko aukera baloratzeko.
<b>Euskararen zeharkakotasuna eta departamentuetako plangintza</b>	Euskarabideko Gobernu Kontseiluaren osaera eta funtzionamendua indartzea, euskararen zeharkakotasunaren eta departamentuen arteko koordinazioaren arduraduna baita, benetako kudeaketa organo eraginkorra izan dadin.  Euskarabidearen aholkularitza eta laguntza, Nafarroako Gobernuko departamentuek beren euskara plana egin, garatu eta ebaluatuko dute. Euskara plan horiek balorazio ekonomikoa izanen dute.  Euskarabidearen koordinazio eta lidergoarekin, hizkuntza politiken transmisioaz eta garapenez arduratuko diren hizkuntza unitateak sortzea departamentu guztietan.  Foru Administrazioako departamentu guztien jardueran euskarari eman beharreko trataera bateratzeko irizpideak adostu eta protokoloak ezartzea.

### 3. Langileak trebatzea euskarazko zerbitzuen eskaintza eta arreta handitzeko.

ARLOAK	EKINTZAK
<b>Langileak trebatzea</b>	Langileen euskarazko prestakuntzarako irizpideak ematea eta hura planifikatu, garatu eta ebaluatzea.  Langile euskaldunak aktibatzea eta euskaraz trebatzea haien lanpostuetan zerbitzua euskaraz emateko eta haien eginkizunak euskaraz garatzeko gai izan daitezen.  Langileen etengabeko euskarazko trebatze teknikoak, lanpostuen komunikazio beharrei loturikoa, diseinatu eta garatzea.
<b>Itzulpenak eta laguntza teknikoak euskarazko zerbitzuak emateko</b>	Nafarroako Gobernuaren itzulpen politika planifikatzea, dauden baliabideak optimizatzea.  Langile euskaldunen eskura baliabide eta tresna egokiak jartzea, haien lanpostuetan euskaraz zerbitzua ematea errazteko eta horretan autonomia handiagoa erdiesteko.  Langile euskaldunen eskura jartzea hizkuntza zalantzak argitzeko eta testuak orrazteko bide telematikoak edota telefonikoak.
<b>Herritarrentzako euskarazko arreta</b>	Zerbitzua euskaraz ematen duten lanpostuak eta langileak ikusteko moduan jartzea, herritarrek euskaraz egiteko aukerak aise ikus ditzaten (mahaigainekoak, paparrekoak, sinadura korporatiboa, etab.).  Dauden kanal desberdinen bidezko herritarrentzako arretan Nafarroako bi hizkuntzak erabiltzeko irizpideak zehaztea eta langileei eraginkortasunez jakinaraztea, haien erabilera bermatzeko.  Herritarrendako programa eta aplikazio informatikoak sortzea eta konfiguratzeko euskaraz erabili ahal izateko.  Euskararen presentzia handitzea Nafarroako Gobernuaren sare sozialetan.  Herritarrei zerbitzu publikoetan dituzten hizkuntza eskubideen gaineko informazioa ematea.  Euskararen erabilera bermatzea Administrazioak eskaintzen dituen zerbitzuen hizkuntza-paisaian (errotulazioan, seinaleetan, karteletan eta antzekoetan).

### 4. Toki entitateekiko lankidetzaren markoa sistematizatzea eta hizkuntza politikari dakarzkien emaitzak hobetzea.

ARLOAK	EKINTZAK
<b>Lankidetzaren markoa</b>	Toki entitateen eremuan euskararen erabilera sustatzeko lankidetzaren arautuko duen hitzarmen marko bat sinatzea eta egoki finantzatzea.



---

Toki entitateek euskara planak egin ditzaten sustatzea eta horretarako aholkularitza nahiz laguntza tekniko ematea.

---

**Euskararen unitate tekniko berriak** Toki entitateetako euskara zerbitzuen mapa zabaldu dadin sustatzea, zerbitzu berriei aholkularitza eta laguntza berezia emanez.

---

**Aholkularitza** Toki entitateen aholkularitza eta informazio eskaerei garaiz eta behar bezala erantzutea.

---

---

### 5. Estatuko Administrazioari erraztea Foru Komunitatean ematen dituen zerbitzuetan euskararen erabilera sartzeko duen helburua.

---

#### ARLOAK


#### EKINTZAK

---

**Lankidetzaren hitzarmena** Euskararen erabilera sustatzeko Estatuko Administrazio Orokorrarekiko lankidetzaren hitzarmen marko bat sinatzeko aukera aztertu eta adostea.

---



**4.4 PRESTIGIOA ETA ERAKARGARRITASUNA**

# *Etorkizuna, futuro en euskera*

Euskarak baldintza ezin hobeak biltzen ditu Nafarroako gizartearekin harreman eta lotura emozional positiboak ezartzeko, euskarak irudikatzen duen balio ukaezin eta berdingabearekin identifikatzea eta hartaz harrotzea ekarriz.

Prestigioa ez da ez erosten ez saltzen; aitzitik, irabazi edo galdu egiten da. Faktore ugari direla eta, euskara ez da berariaz gizartearen balio positibo eta etorkizunekoekin batu nahi izan. Horrek eragina izan du euskara hautemateko moduan eta murriztu ditu euskararen garatzeko gaitasuna eta euskara Nafarroa izan zenaren, denaren eta izanen denaren ezinbesteko erreferente bihurtzeko ahalmena.

Hizkuntza bat etorkizunari eta etorkizun horretan nabarmenduko diren balioei (berrikuntzari, garapenari, giza balioei, teknologiari, globaltasunari eta abarri) lotuta badago, oso aukera handiak izanen ditu garatzeko eta etorkizunari balio bereizgarriak gehitzeko.

Hizkuntza baten prestigioa baloratzeko ez zaie bakarrik hizkuntza horretan mintzatzen direnei erreparatu behar; aitzitik, hizkuntza hori ongi hartua dagoen eremuetara ere jo behar da, beste zeinahi hizkuntzak bezala, euskarak zilegitasuna eta presentzia duen eremuetara, komunikazio tresna den tokietara. Gaur egun, euskararen erabilera guneak gizartean murriztuak dira eta euskararen irudiari eta prestigioari eragiten dio horrek.

Gizartea jarraitu beharreko ereduaren arabera mugitzen da, ohartuki edo oharkabean. Euskarak esparru guztietan (gizartean, aisialdian, ekoizpen esparruetan, esparru birtualetan eta bizikidetzan esparruan) presentzia irabazten duen heinean, haren prestigioa handituko da eta, horrenbestez, erakargarriagoa izanen da hura ikastea eta erabiltzea. Euskara entzutea gutxienez ere ezohikoa den esparruetan, euskara erabiltzen duten erreferenteak behar ditugu, euskaldunen banakako joerarekin hausteko, alegia, erabiltzen duten hizkuntza aldatzea dauden esparruaren arabera.

Hartara, prestigioa eta erakargarritasuna handitzeko, lehenik euskararen presentzia handitu behar da gizartea bizi eta mugitzen den esparruetan, batez ere hizkuntzari ikusgarritasuna eta sinesgarritasuna ematen ahal diotenetan: aisialdian, enpresan, zerbitzu publikoetan, mundu birtualean eta halakoetan.

Ardatz honen beste helburu bat izanen da euskarara erakartzea beren errealitatetik urrun sentitzen duten herritarrak eta euskararekiko jarrera epelak dituztenak.

Azken finean, euskara, balioetsi nahi den beste zeinahi elementuren gisara, garatu beharreko marka bat da; izan ere, euskararen prestigioak Nafarroaren garapenaren alde jokatzen du, maila guztietan.

**HELBURU NAGUSIA:** Euskara gizartearen balio positiboak lotzea, modu atzerazekin eta betikoan.

## HELBURU ESPEZIFIKOAK ETA EKINTZAK

### 1. Euskararen irudia eta prestigioa hobetzea, euskarak Nafarroaren balio positiboekin eta etorkizuneko balioekin duen lotura azkartuz.

ARLOAK	EKINTZAK
<b>Komunikazio estrategia</b>	<p>Euskararen gaineko komunikazio estrategia berritzailea eta integratzailea lantzea, gizarte eragileen ahalik eta adostasun handiena bilduz.</p> <p>Kanpaina iraunkorrak antolatzea gizartea euskararen balioaren gainean sentibilizatzeko.</p> <p>Euskararen hautemate positiboari eta prestigioari lagunduko dieten ekitaldiak (biltzar edo topaketa tekniko, zientifiko, profesionalak, teknologiarri eta berrikuntzari lotutakoak, etab., dibulgatzaileak nahiz akademikoak) antola daitezten sustatzea.</p> <p>Gizartearen hainbat esparrutan (kirolean, kulturean, esparru sozioekonomikoan eta abarretan) egiten diren jardura arrakastatsuetan euskara sar dadin bultzatzea.</p> <p>Euskara teknologiaren munduan sartzea sustatuko duten ekimenak garatzea, hizkuntzaren ikuspegi funtzionala, modernoa eta gaurkotasuneko sustatzeko.</p> <p>Euskarazko bitarteko teknologikoak daudela jakinaraztea eta haiei buruzko informazioa ematea.</p>
<b>Erakunde publikoak eredu</b>	<p>Nafarroako Gobernuaren eta, oro har, foru erakunde publiko guztien irudi korporatiboan euskararen presentzia egokia bermatzea.</p> <p>Nafarroako Gobernuaren eta, oro har, foru erakunde publiko guztien jendaurreko agerraldietan euskararen erabilera egokia bermatzeko irizpideak adostea eta protokoloak ezartzea.</p> <p>Ekimenak garatzea agintari publikoak eta ordezkari eta arduradun politikoak sentibilizatzeko beren lidergoak herritarrek hizkuntza hautemateko moduan duen garrantziaren gainean eta, orobat, jabeaztea euskarari prestigioa emateko duten erantzukizunaz; horretarako, behar diren baliabideak jarriko dira beren eskura.</p> <p>Nafarroako Gobernuaren albisteetan eta prentsa oharretan elebitasuna bermatzea.</p> <p>Publizitate instituzionala ele bietan egitea eta euskarazko zein erdarazko hedabideetan zabaltzea.</p>
<b>Euskararen erreferente positiboak</b>	<p>Euskararen irudi positiboa sendotzea gizartean erreferente diren norbanako "prestigidunek" (kirol, zientzia, ekintzailera, zinema... arloetakoek) euskararen aldeko ekimenekin bat egitearen bidez.</p> <p>Arlo sozioekonomikoko norbanakoek eta entitateek euskararen prestigioa goratzeko duten ahalmena aztertzea eta baliatzea.</p>

**Praktika sozial onak** Sozioekonomiaren eta kulturaren arloetan euskararen erabileran nabarmentzen diren praktika onak ikusaraztea eta aintzatezea.

Euskara erabiltzen duten gizarte eragileek egiten duten lana balioestea eta lan hori aitortzea, ekimenak hedatuz, aitortzen publikoen bidez, etab., ahaztu gabe euskararen presentzia gizartean txikiagoa den eremuetan lan egiten duten eragileak.

Euskararen erabileraren aldeko gizarte ekimenak aitortzea eta hedatzea.

Euskarazko zerbitzuen (enpresen, erakundeen, profesionalen eta abarren) mapa prestatzen laguntzea eta hedatzea, herritarrek gizarte eremu horietan eskaintzen diren euskarazko zerbitzuak ezagut ditzaten.

Euskaraz funtzionatzen duten eta zerbitzuak euskaraz eskaintzen dituzten entitateen, enpresen eta erakundeen artean sareak sor daitezten sustatzea.

**Hedabideen eragina** Euskarazko hedabideen hedadura baliatzea eta balioestea, euskararen balio komunikatiboa gizartean agertzeko.

Euskara positiboki agertzen duten eta haren prestigioari laguntzen dioten erdarazko hedabideen "praktika onak" aitortzea.

**Euskaldunen ahaluntzea** Nafarroako euskaldunak ahaluntzeko tresnak emanen dituzten programen garapena bultzatzea eta laguntzea (esate baterako, Norberaren Hizkuntza Espazioaren Lantegia - TELP).

**Euskararen balioa** Euskarak Nafarroaren izaeran eta nafarren historian duen tokia eta egungo Nafarroa ulertzeko duen balioa agertzeko eta hori hedatzeko ekimenak sustatzea.

Estatuko Nafarren Etxeen eta Euskal Etxeen eta diasporako zentroen sarearen bitartez, euskara Nafarroako izaera eta errealitatearen elementu gisara hedatzeko jarduketak garatzea.

**Arnasguneen balioa** Udalerri euskaldunak Nafarroa osorako erreferente positibo eta erakargarri bihurtzeko ekimenak garatzea eta haien garapen kulturalki iraunkorra balioestea.

### 2. Euskara hurbiltzea beren errealitateetik urrun sentitzen duten herritar nafarrei.

ARLOAK	EKINTZAK
<b>Sentibilizazioa</b>	<p>Euskara ez dakitenei euskara hurbiltzeko eta hizkuntzara erakartzeko bide berriak aztertzea eta ekimenak abiaraztea.</p> <p>Euskararen mundutik kanpoko gizarte eragileekin informazio eta komunikazio kanalak ezarri eta hobetzea, euskara ez dakitenengana diskurtso eta estrategia egokiekirin iristeko.</p> <p>Nafarroako bi mintzaireratik abiatutako elebitasunaren onurak eta abantailak ezagutarazteko jarduketak garatzea.</p>

### 3. Euskararen presentzia gehitzea gizartearen paisaian eta bizitzan, Nafarroaren hizkuntza errealitatearen isla gisa.

#### ARLOAK

#### EKINTZAK

##### **Euskararen presentzia gizartearen paisaian eta bizitzan**

Euskara ikusarazi eta haren presentzia gizartean handitu nahi duten proiektuen ezarpena laguntzea (errotulazioa, kartelak, publizitatea, etab.).

Herritarrek euskara hizkuntza paisaian erabil dezaten errazteko baliabideak paratzea gizartearen eskura (gida, azalpen kartelak, hiztegi laburrak, etab.).


##### **Toponimia**

Nafarroako toponimia nagusiaren nahiz xehearen mantentze-lanak burutzea eta, horretarako, izen geografikoak bildu, ikertu, arautu, normalizatu eta hedatzeko lanak egitea.

Nafarroako toponimia hedatzea helburu duten idatzizko edo ikus-entzunezko proiektuak sustatzea.



## 4.5 EKONOMIA ERAGILEA



## *Berritu, innovar en euskera*

Euskara Nafarroaren ekonomian eta aberastasunean eragin txikiko hizkuntzatat jo izan da beti. Are gehiago, euskararen egiten den zeinahi inbertsio gastu hustzat hartzeko nolabaiteko joera dago. Hurbilketa horrek galarazten digu Nafarroarako aberastasuna eta garapena sortzeko euskarak eskaintzen dituen aukera paragabeak ikustea.

Ardatz honetan, sakondu nahi da euskarak izan dezakeen gaitasunean aberastasuna eta balioa sortzeko dituen estrategia ekonomiko baten elementu bateratzaile gisa. Plan Estrategiko honek etorkizuneko elementu bihurtu nahi du euskara, Nafarroa Europako erdigunean kokatu dadin hizkuntzen, komunikazioaren, ezagutzaren, ikerketaren, garapenaren, hazkundearen, berrikuntzaren eta kulturaren gaineko ekimenei dagokienez, eta haien erakusleihoa izan dadin.

Ekimen hau berritzailea da eta proposatzen diren ikerlanek lagunduko dute haren irismena eta ahalmena ezagutzen.

Bestalde, euskara (produktu edo zerbitzu gisa) balio erantsia den ekoizpen sektoreetan edo euskararen erabilera enpresa ereduaren elementu bereizgarria den tokietan, ekimenak sustatu beharra ikusten da, Nafarroan onurak eta garapen ekonomikoa sortzeko aukera emanen dutenak.

**HELBURU NAGUSIA:** Euskarak duen balio paregabea eta mintzairatako dituen ezaugarriak Nafarroako sektore ekoizle, teknologiko eta berritzaileekin elkartzea

#### HELBURU ESPEZIFIKOAK ETA EKINTZAK

**1. Euskara Nafarroaren ekonomiaren eragile bilakatuko duten ekimenak garatzeko oinarriak ezartzea, euskarak ondare materiagabetzat duen balio paregabea eta mintzairatako dituen ezaugarriak Nafarroako sektore ekoizle, teknologiko eta berritzaileei lotuz.**

ARLOAK	EKINTZAK
<b>Euskararen ahalmen ekonomikoa</b>	<p>Azterketa eta analisi ekonomiko-finantzarioa egitea Nafarroan aberastasuna sortzen lagunduko duen ekoizpen eredu bat sustatzeko euskarak (Komunitateko gainerako ekoizpen sektoreekin batera) duen gaitasunaren gainean.</p> <p>Euskara eragile ekonomiko bihurtzeko lerro nagusiak baloratzea, ondorioak ateratzea, erabakiak hartzea eta ildo nagusiak zehaztea, eta Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategian (S3) behin betikoz sartzea aztertzea.</p> <p>Parte hartzeko ekimenak abiatzea, zehaztutako estrategia aberasteko eta osatzeko.</p>
<b>Estrategia turistikoa</b>	<p>Euskarak turismo eta merkataritza sektoreetan duen egoeraren azterketa sozioekonomikoa egitea.</p> <p>Nafarroan euskararako, turismorako, merkataritzarako eta aberastasuna sortzeko plan baten lerro nagusiak baloratzea, ondorioak ateratzea, erabakiak hartzea eta ildo nagusiak zehaztea.</p> <p>Aliantzak bilatzea euskararen turismo, gastronomia eta merkataritza ibilbidea sortzeko.</p>

**2. Euskara (produktua / zerbitzua) balio erantsia den ekoizpen sektoreetan edo euskararen erabilera enpresa ereduaren elementu bereizgarria den tokietan, Nafarroan onurak eta garapen ekonomikoa sortzeko aukera emanen duten ekimenak sustatzea.**

ARLOAK	EKINTZAK
<b>Euskara produktu / zerbitzu gisa</b>	<p>Beren estrategia ekonomikoaren elementu bereizgarritzat euskara duten negozio eta jardueren egungo inpaktu sozioekonomikoaren azterketa egitea; hau da, euskara aztertzea produktu gisa, zerbitzu gisa edo negozioaren strategiaren funtsezko zati gisa.</p> <p>Euskarazko produktuen eta zerbitzuen eta horien ekoizleen azokak, erakustaldiak, ekimenak eta jarduerak sustatzea eta euskarazko produktuak eta zerbitzuak ekoizten/ematen dituzten eragileen sarea egituratu dadin babestea.</p>
<b>Euskara balio erantsi gisa</b>	<p>Sektore sozioekonomikoan ematen diren laguntzen deialdietan, herritarrentzako zerbitzuetan euskara erabiltzea balio erantsia dakarren kalitate elementu gisa balioestea.</p> <p>Euskarazko zerbitzua eta, oro har, euskararen erabilera kalitate elementu gisa balioesten dituzten ziurtagiriak eta ekimenak proposatzea.</p>


**3. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak euskararen berezko garapen-hobi bihurtzea, euskara eta modernitatea estuago estekatzeko estrategia gisa.**

ARLOAK	EKINTZAK
<b>Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT)</b>	Jarduketak garatzea euskararen erabilera eta ikaskuntza erraztuko duten tresna teknologikoak garatzeko proposamenetan inbertitzeko eta proposamen horiek egin dituzten enpresek itzulkin ekonomiko gehigarria jasotzeko.

**4. Diru-sarrera gehigarriak sortzeko bideak jorratzea, Nafarroan euskarak duen kokapena hobetzeari eraginen diotenak eta Euskarabideak itzulkin ekonomikoak sorrarazteko gaitasuna piztuko dutenak.**

ARLOAK	EKINTZAK
<b>Diru-sarrera gehigarriak ekimen propioen bidez</b>	Diru-sarrera gehigarriak lortzeko aukerak aztertzea, Nafarroako Gobernuak euskararen Plan Estrategiko honetan zein etorkizuneko plan estrategikoetan berrinbertitu ditzan.



**4.6 HIZKUNTZA ESPARRUA**

# *Eskubideak, derechos en euskera*

Euskararen Plan Estrategikoan hizkuntzaren erabilerarekin eta gizarte balioarekin zuzenean loturiko ardatzez gain, gainerako guztietan zeharkako eragina duen ardatz orokor bat dago, bertzeen harroin eta bitarteko dena: hizkuntza esparrua. Ardatz honetan lau arlo nagusi daude: araugintza, lankidetzatza, informazio soziolinguistikoa eta finantzazioa.

Plan Estrategikoak bilatzen duen euskararen egoeraren jauzi kualitatiboa gertatzeko arauzko esparru egokia behar da, zehaztutako ekintzei bide eta babes emanen diena. Araudiak — Euskararen Foru Legearen barnean— euskararen erabilera administrazio publikoetan ez ezik gizarte bizitzan ere bermatu eta sustatu beharko du herritarren hizkuntza eskubideak begiratzea xedea dela.

Nafarroako Gobernuak euskararen eta hizkuntza gutxituen garapenaren esparruan diharduten erakunde eta elkarte batzuekin lankidetzatza eratzea eta arautzea onuragarri du, hainbat helburu erdiesteko elkarlana ezinbesteko bidea edo biderik eraginkorra baita. Orobat, Nafarroako Gobernuari hizkuntza aniztasunaren aldeko nazioarteko foroetan aktiboki parte hartzea komeni zaio.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak hizkuntza politika garatzeko aldian aldiari dagokion informazio soziolinguistikoa eguneratua behar du eta horretarako, datu soziolinguistikoak hornitzen dituzten inkesta eta ikerketak egin beharko ditu politika publikoa modurik ahal den eraginkorrean planifikatzeko.

Azkenik, Euskarabideak Plan Estrategiko honetarako eta, oro har, euskararen garapenerako balizko finantzazio bideak edo baliabide ekonomikoen iturriak bilatzeari ekin beharko dio.

**HELBURU NAGUSIA:** Programa Akordioarekin bat, Plan honen helburuak betetzea ahalbidetuko duen araugintza lantzea, hizkuntza eskubideak babestuko dituen eta euskararen sustapena bultzatuko duen hizkuntza politika dinamizatzen lagunduko duena. Horretaz gain, beste erakundeekin lankidetzak sakontzea eta hizkuntza plangintzarako datu soziolinguistikoak, orokorrak nahiz arlokakoak, aldian-aldian eskuratzea.

## HELBURU ESPEZIFIKOAK ETA EKINTZAK

### 1. Nafarroako administrazio publikoetan eta, oro har, gizarteak jasotzen dituen zerbitzuetan euskararen erabilera arautzea, herritarrak zerbitzu publikoek euskaraz baliatu ahal izateko, gaztelaniaz besteko eraginkortasun eta erraztasun baldintzetan.

ARLOAK	EKINTZAK
<b>Araudia</b>	<p>Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko beharrezkoak diren arauzko xedapenak egitea, Euskarari buruzko Foru Legea garatuz.</p> <p>Euskararen Nafar Kontseiluari dagokion araudia aldatzea, bere osieran gizartearen parte-hartze handiagoa eta eskumen gehiago izan ditzan.</p> <p>Foru Komunitateko Administrazioaren plantilla organikoaren lanpostuen hizkuntza-eskakizunak zehazteko arauen proposamena egitea.</p> <p>Administrazio kontratuen eta diru-laguntzen oinarri eta baldintzetan, enpresek, entitateek eta norbanakoek herritarrekiko harreman zuzenetan euskarazko zerbitzua bermatzeko bete behar dituzten baldintzak sartzea.</p> <p>Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartuta, euskararen ezagutza egiaztatetik salbuetsia izateko aukera aztertzea.</p> <p>Herritarren hizkuntza eskubideak arautzea, zerbitzuen edo produktuen hartzaileak, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak diren aldetik.</p>
<b>Lankidetzak hitzarmenak eta akordioak</b>	<p>Euskaltzaindiarekin eta Eusko Ikaskuntzarekin berariazko lankidetzak akordioak formalizatzea edo dagoeneko daudenen jarraipena bermatzea, izaera bereziko entitateak baitira, Nafarroako Gobernuarekin lotura berezia dutenak.</p> <p>Nafarroako Gobernuak aktiboki parte hartzea estatuko eta nazioarteko eleaniztasunaren eta hizkuntza gutxituen gaineko foroetan (Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Europako Sarea edo European Network to Promote Linguistic Diversity - NPLD elkartearen, Akitania Euskadi Nafarroa Euroeskualdean eta antzekoetan)</p> <p>Euskara aztertzen eta sustatzen diharduten erakunde eta entitate publiko eta ekimen sozialeko erakundeekiko lankidetzak normalizatzea eta hobetzea (Euskararen Erakunde Sozialen Kontseiluarekin, Hizkuntza Eskubideen Behatokiarekin, kasu).</p>

### 2. Euskarak Nafarroan duen egoera soziolinguistikoa, orokorra nahiz arlokakoa, ezagutzeko datuak eta adierazleak eskuratzea, gizarteari eskaintzeko eta hizkuntza politika aldi oroz euskararen errealitatearen gaineko informazio oso eta eguneratua oinarritzeko.

ARLOAK	EKINTZAK
<b>Diagnostikoa eta azterlanak</b>	<p>Euskararen errealitatea eta bilakaera unean-unean modu zehatzean ezagutzen lagunduko duen Euskararen Adierazle Sistema (EAS) garatzea, beste erakunde batzuekin batera.</p> <p>Nafarroako euskararen egoera ezagutzeko, aldiaren aldiko ikerketa soziolinguistikoa eta mapa soziolinguistikoa egitea.</p> <p>Euskararen egoera soziodinamizazioaren gaineko ikerlan eta azterketa sektorialak egitea (hedabideen, teknologiaren, gazteriaren eta halakoen gainean, esaterako).</p> <p>Euskararen behatokia sortzea, euskarak Nafarroan duen egoera, presentzia eta eskaintzari buruzko datuak jasotzeko. Datu horiek plangintzan lagunduko dute eta herritarren eskura jarriko dira.</p>

### 3. Nafarroako toponimia arautzea gizarteak hura ezagutu eta zuzen erabil dezan.

ARLOAK	EKINTZAK
<b>Toponimia</b>	<p>Toponimia nagusiaren eta xehearen gaineko araudia egitea.</p> <p>Toki entitateekin, unibertsitateekin eta beste erakunde batzuekin lankidetzan toponimiaren gaineko ikerketak bultzatzea.</p>

### 4. Finantzaketa eta baliabide ekonomikoak bilatzeko plana garatzea, Plan Estrategikorako funts gehigarriak eskuratzea ahalbidetuko duena eta euskararen prestigioa handitzeko balio izanen duena.

ARLOAK	EKINTZAK
<b>Finantzaketa</b>	<p>Nafarroak Bruselan duen bulegoarekin koordinatuz, Nafarroako Gobernuak kide den erakundeetan finantzaketa eta funtsak bilatzeko bideak aztertzea (esate baterako, Akitania Euskadi Nafarroa Euroeskualdearen bidez edota POCTEFA) diru-laguntza programaren bidez).</p> <p>Planaren proiektu batzuetarako beste finantzaketa bide batzuk lortzeko aukerak aztertzea.</p>

**4.7 EUSKARABIDEAREN BARNE KUDEAKETA**

# *Kudeatu, gestionar en euskera*

Euskararen Plan Estrategikoa prestatzea eta abiaraztea jauzi kualitatiboa da orain arte Euskarabidean egin izan den lanarekiko.

Datozen hiru urteetan ezarri nahi den proiektua asmo handikoa da. Batetik, orain arte babes eta baliabide egokirik izan ez duten oinarrizko jarduera ildoak indartu eta handitu nahi dira; bestetik, pixkanaka jarduera arlo berriak sartzen joan nahi da, gure Komunitatean euskarak gaur egun duen egoerari ikuspegi eta eszena berriak ekarriko dizkioten ekimen berritzaileak gehitzeko.

Euskarabideari aurrean duen erronkari heltzen laguntzeko, barne kudeaketa lantzen duen ardatz bat sartu da Plan Estrategikoan. Alegia, Euskarabidearen barne kudeaketaren gaineko ardatza Plan Estrategikoa osatzen duten oinarrizko piezetako bat da eta berariaz sartu da planean, xede argi batekin: proiektuak behar diren giza baliabideak eta baliabide ekonomiko, material eta metodologikoak izanen dituela bermatzea, Plan Estrategikoa ezarri ahal izateko eta, orobat, errendimendu handiko eredu bihurtzeko.

Erreferentzia gisa pertsonak hartuz, pertsonak baitira proiektuak arrakasta izan dezan benetako giltzarri eta gako, kudeaketaren elementu desberdinak jorratzen joanen gara: estrategia, zerbitzuen bezero/erabiltzaileekiko harremanak, lan prozesuak sinplifikatzea eta automatizatzea, baliabide propioen optimizazioa eta gizarte-eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko funtsezko adierazleak ezartzea.

Horiek horrela, Euskarabideak barne eraldaketa handia jasateko prest egon behar du, bestela zaila izanen baita finkatutako helburuak erdiestea.

Euskarabidea erakunde autonomoaren barne kudeaketaren gaineko ardatza izanik, garatuko diren ekintza zehatzak agiri honetan ez jasotzea erabaki da, nahiz eta Planaren gainerako ardatzetan bezala, badauden xeheki zehaztuta. Beraz, ardatz honi dagozkion helburu nagusia eta helburu espezifikoak baino ez dira emanen.

**HELBURU NAGUSIA:** Proiektuak behar diren giza baliabideak eta baliabide ekonomiko, material eta metodologikoak izanen dituela bermatzea, Plan Estrategikoa ezarri ahal izateko eta, orobat, errendimendu handiko eredu bihurtzeko.

#### HELBURU ESPEZIFIKOAK ETA EKINTZAK

**1. Euskarabideak erakunde gisa dituen planteamenduak (misioa, ikuskera eta balioak) Plan Estrategikoarekin bat etortzea, eta erakundea behar duen aurrekontuaz eta egitura organikorik egokienaz hornitzea.**

**2. Plan Estrategikoaren buru izanen diren langileen profila hobetzea eta langile guztiak erakundearen betekizun berriak beren gain hartu ahal izateko gaitzea.**

**3. Ziurtatzea Euskarabideak badituela Plan Estrategikoa egoki kudeatzeko baldintza guztiak, alderdi hauei dagokienez: bezeroekiko/erabiltzaileekiko harremanei, zerbitzuei eta prozesuei, barne koordinazioari eta bere baliabideen kudeaketari dagokienez.**

**4. Proiektuaren kontrolerako eta jarraipenerako mekanismoak jartzea proiektuari berari, bai eta gizartean izanen duen inpaktuaren ebaluaziorako ere.**

## 05 Jarraipena eta ebaluazioa

Plan Estrategikoaren jarraipenari eta ebaluazioari ikuspegi bikoitzetik ekinen zaio. Alde batetik, ekintzen gauzaperaren kontrol egokia bermatzea, modu erraz eta eraginkor batean hori egitea ahalbidetuko duen tresna multzo baten bidez; bestetik, erdietsitako emaitzak eta eragina ebaluatzea, zehazturiko helburuen betetze-mailaren balorazioaren bidez.

### 5.1 Jarraipena

Planaren ezarpenaren etengabeko jarraipena egin ahal izateko beharrezko mekanismo eta tresnak ezarri dira. Horrela, une oro jakinen da zein den ekintzen gauzatze maila eta erdiesten ari diren emaitzak, neurriak hartu ahal izanen dira balizko desbideratzeak zuzentzeko, eta inplikaturiko eragile guztien eta, oro har, herritarren eskura jarri ahal izanen da, erabateko gardentasunez, Planaren gauzatze mailaren egoera.

Ondoren, jarraipena egitea ahalbidetuko duten tresnak jasotzen dira:

#### EKINTZEN PLANIFIKAZIO XEHAKATUA

Plana osatzen duten 173 ekintzak, ondoko 3 urteetan garatu beharko direnak, ekintza fitxa batean zehazten dira. Bertan jasoko dira ekintza hauen jarraipen egokia egiteko behar diren elementuak: arduradunak, epeak, parte-hartzaileak, erdietsi beharreko produktu/emaitzak, kostua, etab.

#### BARNE KUDEAKETA (7. ARDATZ ESTRATEGIKOA)

Euskarabidearen barne kudeaketa berariaz sartu da ardatz estrategiko gisa. Horrekin, xedea da bermatzea proiektuak giza baliabideak eta baliabide ekonomiko, material eta metodologikoak izanen dituela, Plan Estrategikoaren ezarpena bermatzeko eta errendimendu handiko eredu bihurtzeko. Ildo horretan, hasitako prozesuak eramanen du ondoko urteetan Euskarabideko kudeaketa eta eguneroko jardura Planaren ezarpenarekin lerrokatzera, horrela, helburuak beteko direla bermatuz.

#### EUSKARAREN NAFAR KONTSEILUA

Behin Euskararen Nafar Kontseiluaren osaeraren eta eginkizunen gaineko aldaketak eginez gero (2015-2019 legegintzaldirako Nafarroako Gobernurako Akordio Programatikoa ezarritakoarekin bat), Kontseiluak rol berri bat hartu beharko du eta praktikan Plan Estrategikoaren zinezko Zuzendaritza Batzorde bihurtu beharko du. Planaren gainbegiratze, zuzentze eta bultzatze lana, gorenko mailan, Kontseiluaren eskudantzia nagusienetakoa izanen da, eta ezinbesteko gakoa, Planaren ezarpenak arrakasta izanen badu. Kontseiluaren konfigurazio berriak aukera emanen die Nafarroan euskararen inguruan lanean ari diren entitate, talde eta erakundeei parte hartzeko.

#### EUSKARABIDEKO GOBERNU KONTSEILUA

Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika taxutzen duena bere zeharkakotasuna da. Euskarabideko Gobernu Kontseiluaren bidez (erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen abuztuaren 28ko 130/2015 Foru Dekretuak ezarria) bermatzen da Gobernu Kontseiluko departamentuek parte hartuko dutela Planaren garapenean. Horrela, Gobernu Kontseiluari egiazko organo ebazle bihurtzea dagokio, halako moldez non Plana gauzatzeko departamentu

guztien konpromisoa eta inplikazioa bermatuko duen, departamentuarterko batzordeen funtzionamendu ereduek izan ohi dituzten mugak (parte-hartze urria eta gauzatze maila eskasa) gaindituz.

Departamentuetan hizkuntza unitateak sortzea eta ondoren departamentu bakoitzean euskara planak abiatzea funtsezkoa izanen da hizkuntza politikaren zeharkakotasun printzipioa gauzatu ahal izateko.

#### TALDE TEKNIKOA

Lantalderik eraginkorra da; ekintza propioak garatzeaz eta Gobernuaren beste arlo batzuen edo beste entitate edo erakunde batzuen erantzukizunekoak diren gainerako ekintzak gauzatzeko behar diren baliabide eta pertsonak mugiarazteaz arduratuko da.

Ardatzetako bakoitzerako ardatzeko liderraren irudia sortuko da. Ardura hau funtsezkoa da ardatz bakoitzeko ekintzak koordinatu eta bultzatzeko. Halaber, Plana ezartzeko prozesu guztian, Nafarroako Gobernuko antolaketako teknikari batek parte hartuko du eta aholkulari arituko da. Lantalde teknikoak Euskarabideko zuzendaritzak gainbegiratuko du.

#### JARRAIPIEN TXOSTENAK

Urtean behin jarraipen txosten bat egiten da. Bertan zehaztuko da zein den proiektuaren gauzatze egoera, egindako lanaren gainean kontu emateko, bai barrura (Euskarabideko Gobernu Kontseilura) begira, bai kanpora (Euskararen Nafar Kontseilura) begira zein, oro har, herritarrei begira (Gardentasunaren Atariaren bidez).

## 5.2 Ebaluazioa

Plana prestatzeko prozesu guztian zehar, une oro, gogoan izan da Plana diseinatzeko eta gauzatzeko tenorean ebaluazioa barne hartu behar zela. Ekintzen gauzatze mailaren jarraipen operatibotik (epeak, mugarriak, kostua, etab. ezartzetik) harago, funtsezkoa da politika publiko hau ezartzeko prozesu guztian zehar erdietsitako emaitzak eta eragina ebaluatzea.

Abiaturuko diagnostikotik abiatuta, aski argazki zehatza dago euskarak gure Komunitatean duen errealitatearen gainean. Horrek abiaturuko erreferentziako balioak ekartzen dizkio adierazle bakoitzari eta, horrela, bere garaian baloratu ahal izanen da zein izan den bilakaera eta, ondorioz, zehaztu diren helburuen gauzatze maila.

Hala ere, prozesu honetan, argi ikusi da, era berean, jarduera arlo edo lan ildo zenbaiten gainean dagoen informazioa urria dela edo informaziorik ez dagoela. Gabezia horrek behartzen gaitu informazioa eskuratzeko abiaturuko lan bat egitera, arlo horietan erdietsi nahi diren emaitzen eta eraginaren balorazioa zuzen egin ahal izateko.

Nolanahi ere, eta alderdi positibo gisa, funtsezkoa da azpimarratzea urteetan egin izan direla prestigio eta doitasun aitortua duten ikerketa, inkesta eta landa-lanak euskararen egoeraren bilakaeraren gainean. Lan horiek balio handikoak dira, eta ezinbesteko informazioa ematen digute ebaluazioari ekin ahal izateko. Bereziki aipagarriak dira inkesta soziolinguistikoak, mapa soziolinguistikoak, euskararen erabileraren kale-neurketak eta Euskararen Adierazle Sistema (EAS).

Bestetik, planteatzen den jarraipen eta ebaluazio sistema malgua da eta prozesuan zehar adierazle berriak sartuko dira, jada badirenak finduz eta hobetuz.

Horrekin guztiarekin, hautaketa lana egin da, erabiliko ditugun adierazle guztien artean eragin eta garrantzi handienekoak aukeratzeko: horiekin aginte-taula eraiki da, epe ertain eta luzean baliagarri izanen zaiguna baloratzeko Planean zehazturiko estrategiak bat egiten ote duen finkaturiko helburu nagusien gauzatze mailarekin eta, funtsean, aldaketak eragiten ote dituen xede dugun errealitate soziolinguistikoan.

## 5.3 Aginte-koadroa

		ADIERAZLEAREN DESKRIBAPENA	GAUR EGUNEKOA	HELBURUA		
GIZARTEARI ZERBITZUAK EMATEA	GIZARTE ERABILERA	<b>Biztanleria guztia: euskararen benetako erabileraren ehunekoa</b> <i>(gaur eguneko datua: Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, 2011).</i>	% 5,7	% 6,5		
		<b>2-15 urteko biztanleria: euskararen benetako erabileraren ehunekoa</b> <i>(gaur eguneko datua: Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, 2011).</i>	% 7,5	% 9,5		
		<b>16-24 urte: euskara gehienetan edo ohikotasunez erabiltzen dutela dioten gazteen ehunekoa</b> <i>(gaur eguneko datua: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016).</i>	% 7,5	% 9		
		<b>16 urteko edo gehiagoko biztanleria: euskara gehienetan edo ohikotasunez erabiltzen dutela dioten herritarren ehunekoa</b> <i>(gaur eguneko datua: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016).</i>	% 6,6	% 8,5		
		<b>Euskarazko hedabideen kontsumoa</b> <i>(gaur eguneko datua: ez dago. Aurreikusitako iturria: Nafarroako Komunikabideen Audientzien azterlana, CIES)</i>	% ?	% -		
		<b>16 urteko edo gehiagoko biztanleria: euskara merkataritzan ohikotasunez erabiltzen dutela dioten herritarren ehunekoa</b> <i>(gaur eguneko datua: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016).</i>	% 6,4	% 8,5		
		<b>Euskaldunak % 70 baino gehiago diren herrietako biztanleria: euskararen benetako erabileraren ehunekoa</b> <i>(gaur eguneko datua: osatugabea [biztanle gehien dituen udalerrikoa jarri da: Baztan, 2015]. Aurreikusitako iturria: Soziolinguistika Klusterra).</i>	% 61,2	% 65		
		<b>Eremu euskalduneko 16 urteko edo gehiagoko biztanleria: euskara gehienetan edo ohikotasunez erabiltzen dutela dioten herritarren ehunekoa</b> <i>(gaur eguneko datua: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016).</i>	% 50,7	% 53		
		HIZTUN BERRIAK		<b>16 urteko edo gehiagoko biztanleria: euskara ongi hitz egiten duten herritarren ehunekoa</b> <i>(gaur eguneko datua: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016).</i>	% 12,9	% 14,5
				<b>3 urteko biztanleria: euskaraz, D eremuan, eskolatuen ehunekoa</b> <i>(gaur eguneko datua: Hezkuntza Departamentua, 2015-2016 ikasturtea).</i>	% 28,5	% 30
<b>6-16 urteko biztanleria: euskaraz, D eremuan, eskolatuen ehunekoa</b> <i>(gaur eguneko datua: Hezkuntza Departamentua, 2015-2016 ikasturtea).</i>	% 26,5			% 28		
<b>3-15 urteko seme-alabak dituen biztanleria: gurasoetako bakar bat euskalduna denean eta euskara lehen hizkuntza ez duenean, hizkuntza transmititu duten kasuen ehunekoa</b> <i>(gaur eguneko datua: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016).</i>	% 54			% 60		
		<b>Euskara ikasten duen biztanleria heldua: kopuru absolutua</b> <i>(gaur eguneko datua: Euskarabidea, 2016).</i>	5.319	6.117		



GIZARTEARI ZERBITZUAK EMATEA	ZERBITZU PUBLIKOAK	Euskaraz erantzutea hizkuntza hori erabiltzen dutenei departamentu bakoitzean lehenetsuzkotzat identifikaturiko puntuetan <i>(gaur eguneko datua: ez dago. Aurreikusitako iturria: Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanen Departamentua).</i>	
		% ?	% 100
		Herritarrek Nafarroako Gobernuarekin on line egiten duten zeinahi tramitazio euskaraz egin ahal izateko aukera <i>(gaur eguneko datua: ez dago. Aurreikusitako iturria: Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentua).</i>	
		% ?	% 100
		Larrialdietako 112 telefonoan euskara erabiltzen duten pertsonen hizkuntza horretan erantzutea <i>(gaur eguneko datua: ez dago. Aurreikusitako iturria: Lehendakarietako, Funtzio Publikoak, Barneko eta Justiziako Departamentua).</i>	
% ?	% 100		
Telefono bidezko informaziorako 012 telefonoan euskara erabiltzen duten pertsonen hizkuntza horretan erantzutea <i>(gaur eguneko datua: ez dago. Aurreikusitako iturria: Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentua).</i>			
% ?	% 100		
Nafarroako Gobernuak euskaraz egindako izaera orokorreko komunikazioak <i>(gaur eguneko datua: ez dago. Aurreikusitako iturria: Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentua).</i>			
% ?	% 100		
IKUSKERA BERRIA	PRESTIGIOA ETA ERAKARGARRITASUNA	16 urteko edo gehiagoko biztanleria: euskararen erabilera sustatzearen alde dagoen biztanleriaren ehunekoa <i>(gaur eguneko datua: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016).</i>	
		% 33,3	% 38,5
IKUSKERA BERRIA	EKONOMIA ERAGILEA	Euskararen pisua Nafarroako ekonomian: adierazlea zehazteko dago <i>(gaur eguneko datua: ez dago. Aurreikusitako datua: Garapen Ekonomikorako Departamentua).</i>	
		% ?	% --

## 06 Memoria ekonomikoa

2015-2019 legegintzaldirako Nafarroako Gobernuak Akordio Programatikoa Plan Estrategiko errealista, egingarri eta eraginkor bat diseinatzeko konpromisoa jasotzen du, Nafarroako Gobernuak garatuko duen hizkuntza politikaren oinarri.

Plan horren ezarpenarekin erantzun egokia eman nahi zaio herritarrek euskara ezagutu eta erabiltzeko duten eskubideari, definitu nahi dira hori gauzatzeko tresnak eta neurriak hartu nahi dira eskubide hori babestu eta garatzeko.

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen abuztuaren 28ko 130/2015 Foru Dekretuak ezartzen duenez, Euskarabidearen eskumen eta eginkizunak dira ondokoak: "Euskara sustatzeko eta erabiltzeko Plan Estrategikoaren proposamena egitea eta beroni jarraipena egiteko, ebaluatzeko eta eguneratzeko nahitaezkoak diren azterlan eta ikerketak egitea".

2016ko otsailaren 16an Euskararen Nafar Kontseiluak Nafarroako Gobernuari eskatu zionetik Plan Estrategikorako proiektu bat prestatzeko, Euskarabidea lanean aritu da plana herritarren parte-hartze prozesu baten bidez egiteko. Horren ondorioa da 6 ardatz estrategikotan multzokatutako 173 ekintza dituen dokumentu bat. Guztira, 2017. urterako aurreikusitako gastua 3.168.770 eurokoa da, honela banatuta:

Ardatz estrategikoa	2017 €
1. Gizarte erabilera	800.000
2. Hitzun berriak	700.000
3. Zerbitzu Publikoak	763.099
4. Prestigioa eta erakargarritasuna	345.000
5. Ekonomia eragilea	100.000
6. Hizkuntza esparrua	460.670
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.168.770</b>

Gastu hau zuzenki Planean jasotako ekintzak finantzatzeko da, ekintza horiek gauzatzea legezko betebeharrak bati baitagokio. Finantzaketa horrek aurrekontu babesa du 2017ko Aurrekontu Orokorrek Euskarabideari esleituriko kontu-sailetan.

Ildo horretan, Planaren ezarpenean jarduketara koordinatu bat behar izateak ondorio gisa ekarri du, Planean berean islatzen den gisan, komenigarritzat jotzea proiektua gidatzera deitua dagoen Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuak Planaren ezarpenari dagokion aurrekontuaren kudeaketa zentralizatua egitea.

Horretarako, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan jada onetsia den zuzkiduraz gain, 2018 eta 2019rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren proiektuak prestatzerakoan kontuan hartuko da Euskararen Plan Estrategikoa, betiere, Nafarroako Gobernuaren 2016ko otsailaren 10eko Erabaki bidez onetsirik 2016-2019 aldirako Zenbait Urtetarako Esparru Ekonomikoaren irizpideen baitan. Horrela, Plan Estrategikoak urte horietarako jasoak dituen ekintzak gauzatzeko aski aurrekontu zuzkidura izanen dela aurreikusten da. Hori ez da eragozpen baina, Nafarroako Gobernuko Departamentuek, Planean jasotako ekintzetako zenbait garatzeko orduan, ekintza horiek beren aurrekontuaren kontura finantzatzeko.

## 07 Eranskina

**Mahai teknikoetan parte hartu zuten eragileak, mahaika sailkatuak:**

### POLITIKA PUBLIKOAK

IZEN-ABIZENAK	ERAKUNDEA
<b>Itziar Diez de Ulzurrun</b>	Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua
<b>Fermín Zabalza</b>	Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua
<b>Aingeru Mikeo</b>	Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua
<b>Juan Carlos Lázaro</b>	Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia
<b>Íñigo Arrizubieta</b>	Justiziako Zuzendaritza Nagusia
<b>Patxi Gerriko</b>	Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua
<b>Corpus Urroz</b>	Nafarroako Zerga Agentzia
<b>Pello Bandrés</b>	Nafarroako Estatistika Institutua
<b>Lázaro Elizalde</b>	Osasunbidea - Nafarroako Osasun Zerbitzua
<b>Nerea Álvarez</b>	Osasunbidea - Nafarroako Osasun Zerbitzua
<b>Esteban Ruiz</b>	Osasunbidea - Nafarroako Osasun Zerbitzua
<b>Xabier Jaso</b>	Nafar Lansare - Nafarroako Enplegu Zerbitzua
<b>Inma Errea</b>	Iruñeko Udala
<b>Koldo Kolomo</b>	Nafarroako Udaletako Euskara Teknikarien Sarea
<b>Patxi Zabaleta</b>	Euskaltzaindia
<b>Asier Barandiaran</b>	Eusko Ikaskuntza eta Euskararen Nafar Kontseiluko kidea
<b>Miren Segurola</b>	Udaleri Euskaldunen Mankomunitatea
<b>Garbifé Petriati</b>	Hizkuntz Eskubideen Behatokia
<b>Paul Bilbao</b>	Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua
<b>Zigor Etxeburu</b>	Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua

### EUSKARAREN IRAKASKUNTZA ETA EUSKARAZKO SOZIALIZAZIOA

IZEN-ABIZENAK	ERAKUNDEA
<b>Paula Kasares</b>	Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua
<b>Esther Mugertza</b>	Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua
<b>Roberto Pérez Elorza</b>	Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia
<b>Aitor Etxarte</b>	Nafarroako Eskola Kontseiluko burua
<b>Mario Zapata</b>	Nafarroako Udaletako Euskara Teknikarien Sarea
<b>Alfredo Dufur</b>	Nafarroako Udaletako Euskara Teknikarien Sarea
<b>Pello Eguren</b>	Nafarroako Ikastetxeetako Zuzendaritzakideen Elkarte
<b>Luis Ángel Lizarribar</b>	Nafarroako Ikastetxeetako Zuzendaritzakideen Elkarte
<b>Tomas Donazar</b>	ADI - Nafarroako Institutu Zuzendarien Elkarte
<b>Irene López Goñi</b>	Nafarroako Ikastolen Elkarte eta Euskararen Nafar Kontseiluko kidea

<b>Sergio Iribarren</b>	Sortzen elkarte
<b>Nekane Oroz</b>	Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusia
<b>Susana Preboste</b>	Nafarroako Unibertsitate Publikoa
<b>Naiara Ardanaz</b>	Nafarroako Unibertsitatea
<b>Covadonga Romero</b>	Urrutiko Hezkuntzako Unibertsitate Nazionala - UNED Iruña
<b>Laura Rebollo</b>	Urrutiko Hezkuntzako Unibertsitate Nazionala - UNED Iruña

## HELDUEN ALFABETATZEA ETA EUSKALDUNTZEA

IZEN-ABIZENAK	ERAKUNDEA
<b>Juaninazio Lizarraga</b>	Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua
<b>Mikel Ortigosa</b>	Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua
<b>Koldo Los Arcos</b>	Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua
<b>Karlos Delas</b>	Zubiarte Euskaltegia
<b>Adelaida Kintana</b>	Zubiarte Euskaltegia
<b>Imanol Haranburu</b>	Iruñeko eta Tuterako Hizkuntza Eskola Ofiziala
<b>Elbira Lizeaga</b>	Nafarroako Udaletako Euskara Teknikarien Sarea
<b>Alizia Iribarren Andueza</b>	Alfabetatzeko eta Euskalduntzeko Koordina.-AEK
<b>Xabier García Castel</b>	Alfabetatzeko eta Euskalduntzeko Koordina.-AEK
<b>Joserra Olano</b>	Ikas eta Ari - IKA eta Euskararen Nafar Kontseiluko kidea
<b>Jon Elustondo</b>	Bai&By

## GIZARTE ERAKUNDEAK

IZEN-ABIZENAK	ERAKUNDEA
<b>Ander Irizar</b>	Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua
<b>Arrosa Sestorain</b>	Arturo Campion Kultur Elkarte
<b>Juan Luis Etxaburu</b>	Karrikiri Iruñeko Euskaldunon Elkarte
<b>Jon Bujanda</b>	Karrikiri Iruñeko Euskaldunon Elkarte
<b>Mikel Arrasate</b>	Karrikaluze euskaldunon topagunea
<b>Khadim N'Diaye</b>	Karrikaluze euskaldunon topagunea
<b>Mikel Haranburu</b>	Euskokultur Fundazioa
<b>Oskar Zapata</b>	Euskaltzaleen Topagunea eta Euskararen Nafar Kontseiluko kidea
<b>Pablo Kormenzana</b>	Asociación Topagunea

## EUSKARAZKO HEDABIDEAK

IZEN-ABIZENAK	ERAKUNDEA
<b>Javier Fernández Anaut</b>	Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua
<b>Juanjo Balerdi</b>	Komunikazio Zuzendaritza Nagusia
<b>Alaitz Artolazabal</b>	Tokikom toki komunikabideen bateragunea
<b>Urko Aristi</b>	Tokikom toki komunikabideen bateragunea
<b>Goizeder Anton</b>	Tokikom toki komunikabideen bateragunea
<b>Mikel Bujanda</b>	Euskalerrria Irratia

<b>Joseba Igarabide</b>	Xaloa TB
<b>Iban Arregi</b>	Berria egunkaria
<b>Alberto Barandiaran</b>	Hekimen euskal hedabideen elkarte

## SUSTAPENA KULTURAN, KIROLEAN, AISIALDIAN ETA IKT-ETAN

IZEN-ABIZENAK	ERAKUNDEA
<b>Eduardo Aldasoro</b>	Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua
<b>Mikel Ozkoidi</b>	Kultura Zuzendaritza Nagusia
<b>Iñaki Azkona</b>	Iruñeko Udala
<b>Castillo Suárez</b>	Nafarroako Udaletako Euskara Teknikarien Sarea
<b>Xabier Erize</b>	Euskaltzain urgazlea
<b>Amaia Nausia</b>	Eusko Ikaskuntza
<b>Betisa Landa</b>	Nafarroako Kultur Kudeaketako Profesionalen Elkarte
<b>Jon Oyarzun</b>	Kirol Federazioak
<b>Haizea Zamora</b>	Kirol Federazioak
<b>Piluka Guillén</b>	Nafarroako toki entitateetako kirol teknikaria
<b>Elizabeth Santesteban</b>	Nafarroako toki entitateetako kirol teknikaria
<b>Mikel Goldaracena</b>	Kirolaren Zuzendariordetza
<b>Ramón Salaverria</b>	Nafarroako Unibertsitatea
<b>Aniana Alfaro</b>	Gazteriaren Zuzendariordetza
<b>Esther Lakasta</b>	Dindaia fundazioa
<b>Iñaki Agirre</b>	Informatika, Telekomunikazio eta Berrikuntza Publikoko Zuzendaritza Nagusia
<b>Gontzal Agote</b>	Nafarroako Bertsozale Elkarte

## ARLO SOZIOEKONOMIKOA

IZEN-ABIZENAK	ERAKUNDEA
<b>Anuntxi Etxetxipia</b>	Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua
<b>Kontxi del Río</b>	Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua
<b>Patxi Sáenz</b>	Turismo eta Merkataritza Zuzendaritza Nagusia
<b>Amagoia Betelu</b>	Turismo eta Merkataritza Zuzendaritza Nagusia
<b>Amaia Arandia</b>	Industria, Energia eta Berrikuntza Zuzendaritza Nagusia
<b>Martín Ibarra</b>	Industria, Energia eta Berrikuntza Zuzendaritza Nagusia
<b>Arkaitz Illarramendi</b>	Bai Euskarari Ziurtagiriaren Sustapenerako Elkarte
<b>Rober Gutiérrez</b>	Bai Euskarari Ziurtagiriaren Sustapenerako Elkarte
<b>Iker Salaberria</b>	Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua
<b>Gaizka Aranguren</b>	Labrit Multimedia
<b>Itziar Aranguren</b>	Labrit Multimedia
<b>Mikel Soto</b>	Txalaparta argitaletxea
<b>Carlos Albillo</b>	Iruñeko Alde Zaharra elkarte
<b>Olatz Irizar</b>	EMUN kooperatiba

<b>Lucio Tirapu</b>	Laboral Kutxa
<b>Naiara Mondragon</b>	Fagor
<b>Iñaki Elkano</b>	MAPSA
<b>Pello Irujo</b>	ACCIONA
<b>Ascensión Argandoña</b>	Arturo Campion Kultur Elkartea

## ARNASGUNEAK

IZEN-ABIZENAK	ERAKUNDEA
<b>Jela Martínez Urmeneta</b>	Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua
<b>Salba Zabala</b>	Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusia
<b>Idoia Zabaltza</b>	Nafarroako Udaletako Euskara Teknikarien Sarea
<b>Eneka Maiz</b>	UEMA, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea
<b>Iñaki Beltrán</b>	Lekarozko Institutuko zuzendaria
<b>Aitor Eleizpuru</b>	Arantzako Eskolako zuzendaria
<b>Ana Maria Olaiz</b>	Haur eskolak eta herri eskolak
<b>Javier Albizu</b>	Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioa



Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra



euskarabidea

 **16-19.EUS**

[www.euskara16-19.nafarroa.eus](http://www.euskara16-19.nafarroa.eus)